

Arrasate PRESS

ARRASATE • ARAMAIO / Egubakoitza / 2002ko urriaren 25a / 603. zenbakia

Arrasate Lehiaketak 2003

Arrasateko eta ibarreko gazteek sormena lantzeko aukera izango dute aurten ere AEDk antolatutako lehiaketan

Ipuina

Poesia

Komikia

Bertso-paperak

Euskalki-grabazioa

Irrati-erreportajea

ORAIN ETA HEMEN: 2003KO UDAL ZERGA/8 • KIROLA: ERRUGBI TALDEAREN AURKEZPENA/10

ORAINGO ASTEAN: EDERTASUN GIDA/24



LIRAIN

ESTETIKA-ZENTRUA
EMAKUME-GIMNASIOA

Teknika berria!

**TERMOESTIMULAZIO INTEGRALA**

Emaiza azkarragoak eta iraunkorragoak
Eskaera gehien dituzten estetika arazoei irtenbide
azkarragoa eta iraunkorragoa:

- Zelulitis gogor eta biguna
- Tinkotzailea
- Erditze-ostekoa
- Zirkulatorioa, drainatzailea eta lasaigarria
- Birmoldagarria, erreduktorea eta bizkorgarria.

HASIERAKO ESKAINTZA
24 € saio bakoitzeko.

TEKNIKA BERRIAK, GUZTIZ EDERTZEKO

**KIRURGIA ESTETIKOA
(MEDIKU ESTETIZISTA)**

- Liposukzioak.
- Bularren handitze edo txikitzea.
- Laser bidezko depilazioak.
- Dietak / Mesoterapia.

KIROL ZERBITZUA

Talde mugatuak!
Zatoz lehenbailehen izena ematera.

- Aerobika
- Step
- Sasoian egoteko gimnasia
- Muskulazioa
- Sauna
- Makina aerobikoak



KALEINKESTA/ Lantokixen euskeraz egitten dozu?



MARIA JESUS LEZETA
Langillie



AITOR GANTXEGI
Langillie



AMAIA MUXIKA
Langillie



AMAIA NUEVO
Langillie



JOSE ANTONIO GINART
Langillie



ABEL ABARRATEGI
Langabie

Bai. Itzulpen zerbitzu baten egitten dot lan, eta lanien euskeraz egitten dogu berba. Lau langille gabitz, laurak euskaldunek gare, eta horixe bera da geure hizkuntzie, euskerie.

Euskaldunon Egunkaria-rako egitten dot lan; hortan, lanien euskeraz egitten dogu berba. Publizistie naz, eta bezero batzuekin gaztelera egitten dot, baiñe jeneralien, euskeraz.


Irakaslie naz, hortan, neure lantokixen euskerie da nagusi. Hala eta be, pentsetan dot fabriketan ondion lan haundixe egin biher dala. Azken urtiotan bada bitz, baiñe ondiokan...

Ikastolan egitten dot lan, administraziñuen, eta lanien euskeraz egitten dogu berba. Lantokixetan ez dakit zela egongo dan egoerie, baiñe leku askotan erderie da nagusi.

Fagor Elektronikan egitten dot lan, eta oin, gutxienez, altabozetatik berba egitterakuen euskeraz eta gaztelera egitten daue. Gaztiek gehixago egitten daue euskeraz.

Momentu honetan ez dot lanik egitten, baiñe oin arte ibillittako lekuetan beti egin izen dot euskeraz, euskal girue tokau jat. Euskeriekin zerikusixe daukien lanpostuetan ibilli naz.

TXALOAK ETATXISTUAK



TXISTUAK EDANEZ GERO... Maritxu Kajoiko gauean, edo goizaldean, norbait etxera zihoala, Garagartzara bidean dauden zuhaitz hauek pare-parean jarri zitzaizkion. Auto-gidariak lau zuhaitz apurtu zituen, eta zein egun zen kontuan hartuta, badirudi alkohola zela tarteko. Hala izan ez bazen, edanez gero autorik ez hartzeko proposamena egiteko aprobetxatzen dugu.

ETABARRUAN...

ORAIN ETA HEMEN / 7 KIROLA / 11 ZAHARRAK / 17

AEDko gazte eragilea

AEDk gazte eragile berria du aurten. Hura gertuagotik ezagutzeko, elkarrizketa egin diogu.

Mondrak lider jarraitzen du

Mondrak erregional mailako lehen postuan jarraitzen du, Urolaren kontra 1-0 irabazi eta gero.

Ariketa fisikoa, lagungarri

Hirugarren adinean ariketa fisikoa egitea oso lagungarria dela azpimarratu dute adituek.

ASTEKODATUA

%4

DATORREN URTEAN UDAL ZERGAK %4 IGOKO DIRA

2003an, %4 igoko dira udal zergak, Kontsumo Prezioen Indizearen arabera. Proposamena egubakoitzeko osoko bilkura berezian onartu zuten, ASA, EA eta EB alderdien botoekin.

BESTEKEKESANA

“ Mobbing-a modan dagoen patologia bat da, baina orain urte batzuk jada ezaguna zen. Orain famatu egin da, neurri handi batean salaketa asko izan direlako (...). Mobbing-ean errudun bat eta biktima bat izaten da. Normalean arduradunak langile bati egiten dion presioan oinarritzen da patologia hori. Hala ere, langile batek beste bati egiten dion presioagatik, edo langile batek bere arduradunari egiten dion presioagatik ere eratorri daiteke. (...) Biktima lantaldetik baztertuta sentitzen da, egiten duen guztia gaizki egiten omen du, eta arduradunaren jazarpena etengabea izaten da. Hala ere, argi izan, lanean egun txar bat izateak, edo errieta bat entzuteak ez duela mobbing-arekin zerikusirik.

JOAKIN BEDIA
Arrasate Irratia/02-10-23

HERRITARRENBERBAK/ Eneko Barberena



Hiru anaien fabula

Behin batean hiru anaia bizi omen ziren mendiko etxalde batean. Egun batean, anaia zaharrenari iritsi zitzaion etxetik alde egiteko garaia, eta mendizerran barrena abiatu zen gauzak deskubritu eta fundatzeko asmoaz. Okerrik ez egiteko, zapaldu behar zuenari adi egoten zen. Horrenbeste ibili zen horrela, ze lepoa ez zitzaion berriz tente jarri eta gehiegizko arretaren jopu bilakatu zen. Bere bista motzaz, zahartu egin zen urruti joan nahian. Izan ere, haratago begiratu ezin duen begiak ez dio hankari lagundu.

Geroago, erdialdeko anaia-aren txanda iritsi zen. Han abiatu zen mendizerran barrena deskubritu eta fundatzera. Inoiz ez erratu eta bide zuzenetik ibiltzeko, ortzemugari begira erne ibiltzen zen. Baina mutil azkar honek ezin zituen harriak, zuloak... ikusi eta beti egiten zuten estropozu bere hankek. Zahartu egin zen

urruti iritsi nahian, mendian galdurik. Izan ere, gertuen dagoena ikusten ez duen begiak ez du ezer laguntzen.

Azkenean, anaia gazteenari tokatu zitzaion bere bidaia ekitea deskubritu eta fundatzeko asmoz. Okerrik ez egiteko, begi bat ortzemugara zuzendua

zeukan eta besteak lurrari egiten zion so. Horrela bera iritsi zen urrutien, mendizerran barrena. Begi bat bidean zuela eta bestea etorkizunean. Baina bere bidaia laburbiltzeko garaia iritsi zitzaionean, bere begirada galdua

zuen egonaren eta joatearen artean. Izan ere, guztia ikusi nahi duen begiak ez daki zer ikusten duen.”

Itzultzailearen oharra: Bakoitzak atera ditzala fabula honetatik nahi dituen ondorioak. Nik neuk matizazio txiki bat egin nahiko nuke, halaber. Argi dago istorioa ez dela Euskal Herrian gertatu, ze hemen hiru anaia ez lirateke sekula irtengo gurasoen etxetik.

“Argi dago istorioa ez dela Euskal Herrian gertatu, ze hemen hiru anaia ez lirateke sekula irtengo gurasoen etxetik”

Arrasate

Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE
Tel.: 943 71 25 11
Faxa: 943 71 23 89
Posta-e: arrasatepress@goiena.com

ZUZENDARIA
Iker Barandiaran

ERREDAKZIOA
Ubane Madera-
Xabier Urzelai

MAKETAZIOA
Alex Azkarate

ZUZENTZAILEA
Sergio Azkarate

PUBLIZITATEA
Arantzazu Lagunilla
Izaskun Bolinaga
Natali Martinez
Imanol Elortza

ADMINISTRAZIOA
Agurtzane Gainzarain
Ane Berezibar
Iratxe Bengoa

BANAKETA
Julen Aranguren

LEGE-GORDAILUA
55-1124/88

ISSN
0214-4654

TIRADA
7.350 ale

ARRASATE PRESS / TXIRRITOLA • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako
Kultura saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Arrasateko
Udala



Aramaioko
Udala

GUARDIAKO FARMAZIAK

- EGUBAKOITZA, 25**
Azkoaga. Ferrerías 943 79 15 15
- ZAPATUA, 26**
Azkoaga. Iturriotz 943 79 79 99
- DOMEKA, 27**
Corcuera. M. Aranbarri 1 943 79 22 26
- ASTELEHENA, 28**
Irizar. Erguin 11 943 79 12 39
- MARTITZENA, 29**
Amezua. Santa Marina 32 943 79 09 74
- EGUAZTENA, 30**
Zabala. Zarugalde 42 943 77 16 30
- EGUENA, 31**
Ruiz. Maala 31 943 77 14 09

TELEFONO JAKINGARRIAK

- ERIETXEAK**
Arrasateko Eskualde Ospitalea. 943 03 53 00
Igalatorioa. 943 71 26 91
Santa Agedako Ospitalea:
Gizonak 943 79 39 00
Emakumeak 943 79 44 11
Buru osasunerako etxea 943 79 90 11
- LARRIALDIAK**
SOS Deiak 112
Gurutze Gorria 943 76 55 76
DYA 943 78 71 57
- ANBULATORIOAK**
Guardiako medikua 943 46 11 11
Astelehenetik egubakoitzera 17:00etatik 08:30era
Zapatuetan 14:00etatik 08:30era
Asteburuetan eta jaiegunetan. . . egun osoa
- Arrasate**
Astelehenetik egubakoitzera 08:00etatik 17:00etara
Zapatuetan. 09:00etatik 14:00etara
- Txanda hartzeko: medikuntza orok. eta pediatria 943 03 52 50
 - Espezialitateak 943 03 53 11
 - Ikuskatzailea 943 03 52 52
 - Kanpoko kontsultak 943 03 53 11
- ANBULANTZIAK**
Gipuzkoako Anbulantziak 943 45 87 44
- ERTZAINZA**
Arrasate 943 79 71 99
- SUHILTAILEAK**
Udal taldea 943 79 09 00
Udal taldeko suhiltzaileburua. 943 79 20 72
Zubillagako Eskualde Parkea 088
- MATXURAK**
Urak (Udal Zerbitzua) 943 79 09 00
Argindarra (Iberduero) 943 12 01 62
Gasa 900 40 05 23
943 79 78 44
- GARRAIOAK**
Taxiak 943 79 12 22
PESA 902 10 12 10
- HIRUGARREN ADINEKOENTZAKO ETXEAK**
Iturbide egoitza 943 79 72 11
Abaroa erretiratuaren egoitza . . . 943 79 81 57
- MONTEIRON LIBURUTEGIA**
Monterron. 943 77 01 05

MEZAK

- | | |
|---|--|
| San Joan parrokia
Zapatua
19:00 (elebiduna)
Domeka
09:00 (gaztelaniaz)
11:00 meza nagusia (euskaraz)
12:30 (elebiduna) | San Andres eliza
Zapatua
19:00 (elebiduna)
Domeka
10:00 (elebiduna)
11:00 (euskaraz)
12:00 (gaztelaniaz)
13:00 (gaztelaniaz) |
| San Frantzisko eliza
Zapatua
19:00 (elebiduna)
Domeka
09:00 (euskaraz)
10:00 (gaztelaniaz)
11:00 meza nagusia (euskaraz)
12:30 (gaztelaniaz)
19:00 (gaztelaniaz) | Santa Teresa eliza
Zapatua
19:00 (elebiduna)
Domeka
11:00 San Isidron eta zapatua (euskaraz)
12:00 (gaztelaniaz) |
| Uribarri parrokia
Zapatua
19:00 (elebiduna)
Domeka
11:30 (euskaraz)
12:30 (gaztelaniaz) | Santa Marinako eliza
Jaiegun bezpera eta zapatua
19:00 (gaztelaniaz)
Domeka
12:00 (gaztelaniaz) |

OHARRAK

AMARAUNEN KONTZERTUA
Gaur, egubakoitza, Amaraunek kontzertua emango du Amaia Udal Antzokiko hall-ean, 22:30ean. AEDk antolatu du, Kultur Errotaren barruan.

EGUENETAKO ZINEKLUBA
Urriaren 31n, eguenean, *La Biblia negra* filma emango dute Amaia Udal Antzokian, 21:30ean.

CANTE FLAMENKOAREN FINALA
Bihar, zapatua, Al Andalusek antolatutako Cante Flamenko Txapelketako finala egingo dute Amaia Udal Antzokian. 22:00etan hasiko da.

NOIZKO?-REN KARTELADA
Egubakoitzetan, Noizko? taldeak kartelada egiten du, Seber Altuben, 19:30ean.

FLAMENKO FUSIOA
Gaur, egubakoitza, Yahorake taldeak flamenko fusio kontzertua emango du. 23:00etan, Fronton tabernan. Doan izango da.

LITERATURA SOLASALDIK
Azaroaren 7an, Franz Kafkaren *Metamorfosis* liburua aztertuko dute Monterronen, gaztelaniaz. Azaroaren 11n, berriz, Joseba Sarrionandiaren *Lagun Izoztua*-ren gainean mintzatuko dira, euskaraz.

AEDren AGENDA

'HIRU HAUNDIXEK'
AEDk azaroaren 1ean, 2an eta 3an, *Hiru haundixek hiru egunetan* mendira irteera antolatu du. Interesatuok, jo AEDra, urriaren 23a baino lehen, izena ematera.

ZAHARBERRIKO IZENEMATEA
Zaharberri euskaldun zaharrek eta euskaldun berriek parte hartzeko izenematea zabalik dago.

URBANOEN ORDUTEGIA

- Gorostizatik Eroskira**
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00.
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Arimazubi, Alecop, Uribarri, San Andres, Garibai, ospitalea, Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.
- Eroskitik Gorostizara**
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35.
IBILBIDEA: Eroski, Joan Bengoa, Santa Teresa, Cristo Obrero, Obenerreka, Makatzena, J.L. Iñarra, San Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguin A eta Gorostiza.

ORAINDELA 10URTEARRASATEN

Aldibereko itzulpen sistema ezarri zuten

Urte askoan eztabaidagai izan ondoren, orain dela hamar urte, Arrasateko Udalak aldibereko itzulpen sistema estreinatu zuen. Tresneria guztiak bi milioi eta zortziehun mila pezetako kostua izan zuen. Zinegotziak bakarrik baliatu zitezkeen zerbitzuaz, eta ez herritar arruntak.



BERTAKO BERBAK/ Juan Martin Elexpuru

"Diarra"



Deiadarra.
-Baten baten diarra entzun da.
-Polizian kontrako diarrak eittue manifestaziñuan.

HAUGIROA!

MINIMOA Zapatua, 19	6 °C
MAXIMOA Domeka, 20	24 °C
ASTEKO EURIA (l/m²)	13,7 L

	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 16	21 °C	15 °C	4 l/m²
Eguena, 17	12 °C	11 °C	0,8 l/m²
Egubakoitza, 18	19 °C	6 °C	- l/m²
Zapatua, 19	22 °C	6 °C	- l/m²
Domeka, 20	24 °C	9 °C	- l/m²
Astelehena, 21	20 °C	14 °C	3 l/m²
Martitzena, 22	20 °C	15 °C	8,6 l/m²

Bergarako San Juan auzoan jasotako datuak

ARRASATE IRRATIA FM 107.7



Maidar Arriaranen moda desfilea

Diseinatzaile izateko ikasten ari da Maidar Arriaran arrasatearra, eta aurten bukatuko ditu ikasketak. Dagoeneko hasi da arropak josten, eta egindako lehenak erakutsi egin ditu Gasteizen egindako moda desfile baten. Eguenean izango da Maidar irratiaren. Astelehenean, 10:00etan, berriz, bisita egingo digu Amaia Diaz de Monasterioren dietistak. Depresioa txikitzen lagun dezaketen jakiak zeintzuk diren esango digu: txokolatua, platanoa...



Joakin Bediak 'mobbing'-a berbagai

Azkenaldian asko berba egingen da *mobbing*-az. Geroago eta lagun gehiagok dute gaixotasun hori, baina gutxi dakigunez horretaz, mediku batengana jo dugu. Joakin Bediarekin berba egin dugu, eta zapatuan eta domekan elkarrizketa hori berriro entzuteko aukera izango duzue. Estilismoaren tartearen herriko, ibarreko eta Gipuzkoako emakumeak zelan jantzen diren kontatu digu Udalaitz jantzi dendako Sergiok. Haren esanetan, badago aldea.



ASTEKO PROGRAMAZIOA

- ASTELEHENETIK EGUBAKOITZERA**
- 09:00 Albistegia: Maria Agirre eta Nerea Zubietek gidatuta.
 - 09:20 Eguneko agenda.
 - 09:30 Igo autobusera: Aitziber Aranburuzabalak gidatutako magazina.
 - 10:00 Euskadi Irratiko albistegia.
 - 10:06 Igo Autobusera.
 - 11:00 Euskadi Irratiko albistegia.
 - 11:20 Arrasate Irratiko albistegia.
 - 11:30 Eguerdiko hamabiak arte: efermerideak, zozketak, zorion agurrak... Maria Agirrek gidatutako tarte.
 - 12:00 Euskadi Irratiko albistegia
 - 12:06 Musika berriaren tarte: orain dela gutxi kaleratutako abestiak entzuteko aukera.
 - 13:00 Euskadi Irratiko albistegia.
 - 14:00 Goizeko saioaren errepikapena.
 - 19:00-21:00-23:00 Arrasate Irratiko albistegi laburra
- ZAPATUA**
- 11:00 Asteko elkarrizketak: Esteban Laskurain, Joakin Bedia, Sergio Hernando eta Martin Calvo.
- DOMEKA**
- 11:00 Asteko elkarrizketak

ASTEABIHITZETAN

Kooperatibista Euskaldunen Topaketa

Kooperatibista Euskaldunen Topaketetan lepo izan zen Amaia Udal Antzokia. Hain zuzen ere, 800 lagun elkartu ziren batzar berezi horretan. Besteak beste, *Kooperatibak eta Euskara* izeneko liburua aurkeztu zuten ekitaldian. Horrekin batera, Josu Otadui erretiratua ere omendu zuten, Fagorren eta, oro har, kooperatiben sorreran euskararen alde egindako lanagatik. Eta, ezusteko moduan, hainbat belaunalditako pertsona eszenatokira igo ziren eta kooperatibismoa eta euskara uztartzen dituen kantua abestu zuten, guztiek batera, *Gero-Gura* izeneko abestia.

San Viator Eguna ospatu zuten

Astehenean, San Viator Eguna zela-eta, San Viator Ikastolako Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleek -12 urtetik 16 urtera bitartekoek- ekitaldi ugari izan zituzten ikastetxean. Hori bai, azken hiru urteotan moduan, arratsaldean izan zen festa. Guztira, 210 bat ikasle elkartu ziren ospakizunean.

Bestalde, aurtengoa urte berezia da viatoristendako. Izan ere, San Viator kongregazioak mendeurrena bete du aurten. Horren oroimenez, urte osoan ekintza bereziak izaten ari dira Arrasateko San Viator ikastolan.

Beka eskatzeko epea laister bukatuko da

Bukatzeaz dago Udalak emakumeei zuzenduta atera duen 3.000 euroko beka eskatzeko epea. Hain zuzen ere, azaroaren 7a baino lehen aurkeztu behar dira proiektuak udaletxean. Gero, azaroaren 21ean emango dute ezagutzera beka irabazi duenaren izena eta haren proiektua. Horrekin batera, aurkeztu diren gainerako proiektuen gaineko informazioa ere emango dute. Beka horren bitartez, besteak beste, emakumeen bizitza publikoa bultzatu gura du Udalak.



EB, egungo egoeraren gainean berbetan

Oskar Matute legebiltzarkidea eta Martin Calvo legebiltzarreko teknikaria Arrasaten izan ziren martitzenean berbaldia egiten. Hainbat gai aztertu zituzten: besteak beste, Batasunaren legez kanporatzea, Garzon epailearen jardueraren eta ETA erakunde armatua.



USTEAKUSTE / Iker Barandiaran

Etxean ere euskara mimatu

Ez naiz zenbakiez arituko, aspaldian horretarako sasi-orojakile larregi dago-eta; hala ere, ezagun da aurtengo Nafarroa Oinez-ek parte hartzaileen marka egin duela. Izan ere, Nafarroako gobernuak euskararekiko duen jarrera salatzeko eta nafarrei babesa emateko asmoz, hainbat eta hainbat lagunek Tuteran-Fontellaseran jo zuten joan

den asteburuan.

Bestalde, gure artean, edo, hobe esanda, gugandik hurbilago ere euskara berbagai izan da. Arrasateko Udalak, herritarrok euskaraz zein eskaintza jasotzen dugun jakiteko asmoz, Euskaini izeneko egitasmoa abian jarri du. Hori izango da, beraz, Arrasateko egoera linguistikoa neurtzeko adierazle berria.

Bestalde, joan den astean, egunean, Kooperatista Euskaldunen Topaketa izan zen. Argitaratu berri duten *Kooperatibak eta Euskara* liburua aitzakiatzat hartuta, zortziehun lagunetik gora bildu ziren Amaia Udal Antzokian. Ekitaldian hainbat pertsonalitatek parte hartu zuten: tartean, liburua koordinatzen lan egin duen Jon Sarasuak. Kooperatibek euskararen alde egiteko duten bide luzea azpimarratu zuen Jonek.

ASTEKOIRUDIA




GORKA ETXABE

ARRASATEKO ORDEZKARIAK ERE IZAN DIRA FERROFORMAN

Domekan hasi eta eguaztenara arte Ferroforma izeneko Nazioarteko Erakustazoka izan da Bilbon. Han izan diren ehunka enpresaren artean arrasatearrak ere izan dira, urtero moduan: besteak beste, JMA, Talleres AGA, Feliciano Aranzabal eta Jose Maria Gallastegi y Compañía enpresak izan dira Bilboko

erakustazokan. Ferroforma bi urtean behin egiten dute, eta Europan egiten dituzten azoken artean bigarren garrantzitsuena da. Burdindegian, sarrailegintzan, sukaldeko tresnerian eta lorezaintzan da bereziki garrantzitsua. Aurten, hemezortzi herrialdeko ordezkariak izan dira Ferroforman. /X.U.

PUB HAIZEA



UGARAN
jatetxea

Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

ad Ibabe

IBABE GARAJEA

MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA

Gesalibar auzoa, z/g.
Tel.: 943 79 99 61 • ARRASATE

ELKARRIZKETA

ASIER LEATXE/MUSIKARIA ETA SOINU INGENIARIA

“Askok uste dute musikari famatuak oso bereziak direla, baina gehienak umilak dira”

IKER BARANDIARAN

Asier Leatxe Arrasaten jaio zen, baina gaztetan Chicagora jo zuen. Bere burua musikaritzat du, soinuaren gaineko ikasketa mordoa egin ditu eta oso musikari ezagunekin egin du lan. Gaur egun, Zarautzen bizi da.

Noiz joan zinen AEBetara? Familiarekin joan zinen?

1987an joan nintzen, eta familia urte batzuk lehenago, 1982an.

Pena eman zizun hara joateak ala ilusioa zenuen?

Beti ematen du pena bizilekua uzteak, baina beste esperientzia bat bizi gura nuen.

Erraz moldatu zinen hango bizimodura?

Aurretik European barrena ibilia nintzen, eta ingelesez ondo nekiela uste nuen, baina erratuta nengoen. Ingelesez ondo ikasi arte lan handia egin behar izan nuen.

Zerk harritu zintuen gehien Chicagora heldu zinenean?

Chicago oso hiri handia da, eta denetik aurki daiteke. Mundu osoko jendea bizia da han, eta horrek kulturaren, musikan, bizi izateko eran, janarian... oso eragin handia dauka.

Chicagora joan eta handik gutxira, zelakoa zen zure ohiko egun bat?


Hasieran, Truman Collegen ingelesa ikasten hasi nintzen. Horren ondoren, hizkuntzaren maila hobetzeko eskolak jaso nituen, eta gero, unibertsitatean sartzeko prestatu nintzen. Liburutegian neure kasa ikasten ere ibili nintzen, baita jatetxeetan eta tabernetan lanean ere. Gero, soinu ikasketak egin nituen.

AEBetara joan aurretik ere musikarako zalefasun handia zenuen, ezta?

Bai. Arrasaten ez neukan talde finkorik, nire kasa ibiltzen nintzen, baina askotan, lagun batzuekin elkartzten nintzen: Diego Martiarturekin, Asier Zubizarretarekin... Nik, batez ere, gitarra jotzen nuen, baina gure artean instrumentuak aldatu egiten genituen. Bestalde, lehengusu Josebak bluesaren oinarriak erakutsi zizkidan...

Eta Arrasaten bizi zinenean argi zenuen etorkizunean musikaz bizi izango zinela?

Egia esanda, Euskal Herrian ez dago aukera handirik musikaren eta soinuaren gainean ikasteko, eta nik neuk ere arazo hori neukan. Gero, AEBetara joaterakoan, ikasteko aukera handia izan nuen. Are gehiago, Soinu Ingeniaritza ikasketak egin



IKER BARANDIARAN

nituenan eta grabazio estudioetan lan egin nuenean, musika konposizioa beste muturretik bizi izan nuen eta, gainera, musikari askoren lan egiteko modua ikusi nuen. Eta hori guztia oso aberasgarria izan zen.

Erraza izan zen soinu ingeniari bezala izen bat 'hartzea' eta lanak aurkitzea?

Ez dut uste izenik hartu dudarik. Zorte handia izan dut, nik baino askoz gehiago zekien jendearekin lan egin dudalako, eta asko ikasi dut.

Eta zeure burua musikaritzat edo soinu ingeniariatzat daukazu?

Orokorrean, jendeak ez daki gaur egun musikari izateko teknikari ere izan behar dela. Biak lotuta doaz. Musika elektronikoa egiten bada, derrigorrezkoa da, beste musika mota batzuekin, ez horrenbeste. Hasieran, gitarrista nintzen, gero, erritmoak ikasten hasi eta bateria jotzen hasi nintzen. Gaur egun, ordea, erritmoak lantzeko ez dago fisikoki bateriarik jo beharrik. Dena dela, oraindik ere perkusioa jotzen dut tarteka. Bestela, batez ere, teklatuak, samplerrak eta sekuen-

“Euskal Herrian ez dago aukera handirik musikaren eta soinuaren gainean ikasteko”

“Kontzientzia kritikoa pizten ari da AEBetan 'hip-hop'-ari esker, eta hori miresgarria da”

“AEBetako XRoads musika taldeko partaide naiz, eta European zehar bira egin gura genuke”

tzadoreak erabiltzen ditut, ez modu orokorrean, baizik eta filtroekin-eta espermentatuta.

Lehenengo, Chicagora izan zinen, gero, New Yorken eta geroxeago, San Franziskon?

New Yorketik Chicagora bueltatu nintzen, eta han Chicago Trax izeneko bigarren grabazio estudioa eraiki genuen. Sasoi hartan, *jungle* eta *hip-hop* musika estiloak ezagutu eta *jungle* eta *dub* estiloetako disko-jartzaile ere izan nintzen. New Yorkera joan nintzenean, berriz, WordSound taldeko jendearekin topo egin nuen, 90eko hamarkada erdialdean *hip-hop*-aren, *jungle*-aren eta *dub*-aren aldaketa elektronikoaren aitzindariekin. Gero, San Franziskora jo nuen.

Musikari askorekin lan egin duzu. Zeintzuk dira soinu ingeniari bezala egin dituzun lanik nabarmenenak?

Ez dakit zein nabarmendu... Adibidez, Jim O'Rourke-rekin edo Mad Professor-ekin zuzenean lan egitea oso dibertigarria izan zen. Ben Monder Trio-rekin lan egitea ere bitxia izan zen. Lan batzuk goraipatzearen, iaz Bamuthi taldearekin eta Teresa

Vásquezekin grabatutako diskoa oso gustuko dut; *hip-hop*-aren eta olerkiaren arteko nahasketa bat da: *spoken word*-a. Lantaldean aritu nintzen azkeneko estudioa New Yorkeko Electric Lady Studio izan zen, Jimmi Hendrixek eraikitakoa; Violent Femmes taldearekin lan egin nuen han. Dena dela, gurago dut zuzenekoak egitea, kaleko pultsua hor dagoelako. *Hip-hop*-a ere miresten dut, musikaren historia *hip-hop*-aren munduan idazten da-eta. *Hip-hop*-ari esker kontzientzia kritikoa handia sortzen ari da.

Rock izar batzuekin lan egin duzu. Zer moduzkoak dira? Izango duzu pasarterik...

Askotan, jendeak uste du musikari famatuak oso bereziak direla, baina nirekin lan egin dutenak umilak dira. Edozelan ere, nik eurekin izan dudana harremana profesionala bakarrik izan da. Gogoan daukat Celia Cruz etorri zenekoa... Grabaziora etorri ziren beste musikariak kexuka ibili ziren: batek katarroa zeukala, besteak ajea... Denak ziren zailtasunak. Bat-batean, Celia Cruz agertu zen eta *di-da* egin zuen egin beharrekoa.

Gaur egun, Euskal Herrian bizi zara, baina aurrez etorri izan zara? Oso aldatuta ikusi duzu Arrasate?

Bai; aitona hil zenean etorri nintzen, eta beste baten ere. Arrasate izugarri aldatuta dago.

AEBetan zinela, herrimik bazenuen?

Zertxobait bai, behin baino gehiagotan Euskal Herria ametsetan agertzen zitzaidan.

Bide batez, non harrapatu zintuzten irailaren 11ko gertaerak?

Txinan, emaztearekin. Handik gutxira bueltatu nintzen eta AEBetan sekulako nahasmena zegoen... Ez nago batere ados horren ondoren Afganistanen egin duten sarraskiarekin. Horrela ez da ezer konpontzen.

Noiz bueltatu zara Euskal Herrira, eta zer dela eta erabaki zenuen bueltatzea?

2002ko maiatzean etorri nintzen, geratzeko asmoz. Estudio eramangarria prestatzen ibili naiz, eta horren bitartez, edozein lekutan lan egin dezaket. Banuen gogoia hemen bizi izateko eta hemengo bizimodua ezagutzeko.

Zein asmo daukazu orain? Getariako Ketarri tabernan jaialdiak antolatzen nabil eta esparru askotan espermentatzen nabil. Horrez gain, AEBetako XRoads musika taldeko partaide naiz, eta European zehar bira egin gura genuke; izan ere, AEBetan askotan jo dugu dagoeneko.

ELKARRIZKETA

IRATI PAGOAGA/AED-KO GAZTE ERAGILEA

"Gazteek ateak zabalik dituzte AEDn, edozein zalantza edo gogo dutela ere"

UBANE MADERA

Irati Pagoaga Arrasaten jaio zen, eta Aretxabalean bizi da. Aurten, Arrasaten izango dugu, AEDko gazte eragile lanetan. Euskal Filologia ikasketak bukatzen ari da; eta horrekin batera, Irakasle ikasketak atzerriko hizkuntzan egiten ari da:

Lan mota ugari egingo duzu, ezta?

Gazte Sailak proiektu jakinak ditu: Iparraldearekiko harremana aurrera eramatea; ikastetxeetako gazte euskaldunekin eta sentsibilizazio hori nahiko bereganatuta dutenekin gazte taldea sortzea; Hiru Haundixek Hiru Egunetan egitea azaroaren lehen, 2an eta 3an; Dragoi Jana sanjuanetan; Arrasate-Oñati lasterketa...

Hori da, azken baten, Gazte Sailaren helburua; Gazte Saila egongo bada, gazteekin lan egingo duena izango da, eta hor gazteak izango dira motorra.

Gazte taldea aipatu duzu; orain arte egon da?

Bai, egon da, baina indarririk handiena orain dela bost urte-edo izan zuen. Une honetan dauden gazteak isolatuta daude, ez daude talde baten egituratuta. Gure asmoa da berriro ere gazte taldea abian ipintzea.

Deialdirik egin duzue?

Ez. Orain, ikastetxeekin harremanetan ipintzekotan naiz, eta bide horretatik joko dugu gazte taldea sortzeko. Dena dela, beste gazte guztiak ere gonbidatuta daude.

Zein izango da taldearen zeregina?

Ekintzak antolatzea, lehendik ezarrita daudenak eta gura dituz-



UBANE MADERA

tenak, betiere, euskara ardatza bada, elkartearen ikuspegitik eta herriari zuzendutakoak badira.

Zelako jarrera dute Arrasateko gazteek euskararekiko?

Uste dut kalean lehen baino gehiago entzuten dela. Euskara hori ona edo txarra den ezin dut esan; egia esan, ez dakit eredu ononik ere inon jasotzen duten, hortaz, horren arabera da. Esko-

lan ere ez dute sekulako eredurik jasotzen, sekulako kalitatetik...

Gainerako herrietan moduan?

Nik uste dut gutxiago erabiltzen dutela hemen.

Gomendioren bat...?

Gazteei esatea AEDn ateak zabalik dituztela eta edozein zalantza edo edozein gogo dutela ere, etor daitezela AEDra.



UBANE MADERA

Besteak beste, Zaldibar kalea bere horretan uzteko eskatu zuen EAJK.

Egitamu Orokorra onartu dute behin-behinean

UBANE MADERA

Osoko bilkura berezian onartu zuen udalbatzarrak Arrasateko Egitamu Orokorra behin-behinean. Orain, Gipuzkoako Foru Aldundira bidali dute txostena, hark behin betiko onespena emateko.

Arrasateko Sozialista Abertzaleen eta Eusko Alkartasunaren aldeko botoekin eta gainerakoen kontrako botoekin onartu zuen udalbatzarrak Egitamu Orokorra. Jose Mari Loitik EAJren izenean eta Paco Garciak PSE-EErean, Egitamua lantzeko orduan erabilitako bidea kritikatu zuten. Garciak prozesuaren legalitatean irregularitasunak izan direla salatu zuen. Eta Loitik Arrasate Irratiari adierazi zionez, oposizioa udaberriko hauteskundeei begira dago. Izan ere, Udala beste alderdi batzuek zuzentzen badute, posible izango da Egitamu Orokorra aldatzea.

Horrez gain, alderdi politiko- en alegazioak aztertu zituzten.

EAJrenak ziren gehienak, 22, gutzira: besteak beste, Cerrajerarekin, Zaldibar kalearekin eta Etxe Txikiekin lotutakoak. EBk bederatzia alegazio aurkeztu zituen.

Kontuak kontu, zortzi urteren ondoren, Udalak behin-behineko onespena eman dio Egitamuari. Orain, Diputazioan dute txostena, behin betiko onespena eman diezaien. Asko jota, sei hilabete dute.

EPEAK LUZATZEKO ESKAERA

Bestalde, Gelmaren gaia ere berbagai izan zuen udalbatzarrak. Besteak beste, Jose Maria Loitik, EAJren izenean, gaia mahai gainean uzteko eskatu zuen, eta lau hilabeteko epea eskatu zuen negoziok jarraitzeko. Paco Garciak PSE-EEren izenean ere bat egin zuen eskaera horrekin. Edozelan ere, udalbatzarrak, ASaren eta EAren aldeko botoekin, ez zuen proposamena onartu; hortaz, Gelmaren zatirik handiena errekaraz bestaldera eramango dute, orain Gelma dagoen tokian etxebizitzak eraiki ahal izateko.



Parques y Jardines

- Parke eta lorategien sorkuntza.
- Lorazaintzako mantenimendua orohar.
- Landare-birsorkuntza hidroereintzaz.

Casa-Torre kalea. Tel.: 94 681 90 82 • ABADIÑO



EKONOMIA/ Udalbatzarrak datorren urterako zergen igoera onartu du

Iaz bezala, datorren urtean ere %4 igoko dira udal zergak, KPlren arabera

UBANE MADERA

Ogasun batzordearen proposamena onartu zuen udalbatzarrak egubakoitzeko osoko bilkura berezian. Horren arabera, 2003an, %4 igoko dira udal zergak, Kontsumo Prezioen Indizearen arabera. ASaren, Earen eta EBren botoekin onartu zuten proposamena.

Edozelan ere, badira salbuespenak: adibidez, etxerako ura %7 igoko da; izan ere, zerbitzu hori defizitarioa da Udalarendako. Horren ondorioz, zerbitzu horrek (30m³, gutxienez) 0,48 euro balioko du. Etxeko zabor bilketa, berriz, hiru hilean behin 10,4 euro ordaindu beharko da.

Bestalde, oro har, AUKEAk eskaintzen dituen zerbitzuek %5 egingo dute gora: igerilekuko abonua indibidualak (21 urtetik gorakoendako) 84,60 euro balioko du, eta familiarrak, 132,50 euro. Kiroldegiko abonuek prezio berak izango dituzte. Abonu plusak, berriz, 126,85 euro balioko du indibidualak eta 198,75 euro familiarrak. Eta udako abonua indibidualak 42,25 euro balioko du eta familiarrak, 66,25 euro.



IKER BARANDIARAN

Diputazioak Foru Dekretu berri baten bitartez egoitzen erabilera ordaintzeko sistema berria ezarri du, norbere ahalmen ekonomikoaren arabera.

ERRAUSTEA GARESTIAGO

Hilerriko zerbitzuan ere badira aldaketak: adibidez, titular bakaurreko lau hilobiko panteoia 7.540 euro balioko ditu; ezaugarri bereko hormako hilobiek, 285 euro. Eta hezurtegi bat hamar urterako uzteak, 110 euro. Gorpuak erraustea 204 euro balioko du. Dezente garestitu da (iaz, 38,3 euro balio zuen); izan ere, gorpuak errausteko sistema aldatu egin dute, eta orain, gastu handiagoa eragiten dio Udalari zerbitzu horrek. Horrez gain, gorpuzkien leku aldatzea 39 euro kostako da, eta beilatokia erabiltzeak, 60 euro. Bukatzeko, auzoetan ehorzkeko eskubideengatik 101 euro ordaindu beharko dira.

ALDAKETAK ITURBIDEN

Dena dela, zergak direla-eta aldaketa handiena igarriko dutenak pertsona nagusiak dira; hain justu ere, Iturbide egoitza erabili gura dutenek. Izan ere, Diputazioak onartu duen Foru Dekretu baten eraginez, ordaintzeko sistema berria dago: egoitzan bizi denak

nork bere ahalmen ekonomikoaren arabera ordaindu beharko du. Hau da, ahalmen ekonomiko handia duenak diru gehiago eman beharko du, eta gutxi duenak, gutxiago

edo ezer ere ez. Gehien ordaintzen duenak 1.502 euro ordaindu beharko ditu. Edozelan ere, sistema horrek aurrerantzean egoitzara sartuko direnen gain izango du era-

gina, eta ez han bizi direnen gain. Diputazioaren sistemaren barruan sartuko dira pertsona nagusi ezindak eta ezindu osoak. Autonomoak Udalaren esku geratu dira.

GARABIA ERE GORA
Garestituko den beste zerbitzuetako bat garabi zerbitzua da. Datorren urtean, garabiak autoa eramanez gero, 50 euro ordaindu beharko da; bizikleta, motozikleta edo antzekoak eramanez gero, 15. Eta kamioia, furgoneta edo antzekoengatik, gutxienez, 75.

BESTE ZERGA BAT

Eta beste zerga bat ere izango da aurrerantzean: animalia arriskutsuak edukitzeagatik, baimena eskatzean hamar euro ordaindu beharko dira datorren urtetik aurrera.

Datuak zenbakitan

Trakzio mekanikoko ibilgailuen zerga: ibilgailu gehienek, %3,24 eta 2.500 cm³-tik gorakoek, %9,69
Etxeko ur zerbitzua: (30 m³ gutxienez): 0,48 €
Etxeko zabor zerbitzua: (hiru hiletik behin) 10,40 €
AUKEA: %5 gehiago
Berritasun moduan, txartel bateratuaren zerbitzuaren barruan honako prezioak ezarri dituzte: igerilekuko edo kiroldegiko abonua duenarendako, 71,50 €; eta abonua

plusa duenarendako 80,85 €
Hilerriko zerbitzua:
Panteoia: 7.540 €
Hormako hilobiak: 285 €
Hezurtegiak (10 urterako): 110 €
Errausketa zerbitzua (labe berria): 204 €
Beilatokia: 60 €
Garabi zerbitzua:
Bizikletak, motozikletak...: 15 €
Autoak, furgonetak...: 50 €
Animalia arriskutsuen zerga: 10 €

LABUR

Vanessa Vallejo mondragoetar gaztea martitzenean hil zen, minbiziak jota

Vanessa Vallejo mondragoetar gaztea joan den martitzenean hil zen, 20 urte zituela. Orain dela urte eta erdi pasatxo GOIENKARIAk egin zion elkarrizketa baten kontatu zigun 15 urte zituenetik ari zela biriketako minbiziarekin borrokan.



Eta gaixotasunari aurre egiteko tratamendua jaso ahal izateko jendeari laguntza ere eskatu zion. Gogor eta adoretu egin zuen gaixotasunaren kontra Vanessa, baina azkenean, gaixotasuna indartsuagoa izan da. Goian bego.

Hondakinak batzeko zerbitzua zabaltzeko proposamena egin diote Udalari

Zaborrak astean hiru bider batu beharrean sei bider batzea proposatu dio Mankomunitateak Arrasateko Udalari; domeketan izan ezik, gainerako egunetan. Horrekin batera, tamaina handiko zaborrak, hamabostean behin barik, astero jasotzea ere proposatu diote, baita edukion-

tziak sarriago garbitzea ere. Horretarako, besteak beste, lau kamioi berri beharko liriteke, eta zerbitzu horren kostua %31 garestituko litzateke. Hori dela eta, Udalak adierazi du zerbitzua zabaltzeko baldintza guztiak ondo aztertu behar dituela erabakiren bat eman aurretik.

Arrasatearrak Ferroforman

Alejandro Altuna, Feliciano Aranzabal, Talleres AGA eta Jose María Gallastegi y Compañía lantegi arrasatearrak Bilbon izan dira egunotan, Ferroforma burdindegiko arloko nazioarteko erakustazokan. Domekan ireki zituen ateak Ferroformak, eta eguaztenera arte iraungo du.

IBARREKO TXISTULARIAK BARTZELONAN

Euskal Herriko Txistulari Elkarteak 75 urte egin ditu aurten, eta urtean barrena hainbat ekintza egingo dituzte. Bartzelonako Euskal Etxeak gonbidatuta, Oñatiko, Antzuolako eta Arrasateko txistulariak Bartzelonan izan ziren urriaren 12ko eta 13ko asteburuan. Txistulariek Codorniu bisitatzeko aukera izan zuten, eta bisitatu bakarrik ez, Kataluniako produktu bereizgarri hori probatzeko aukera ere izan zuten. Villafranca de Penedés-en kalejira egin zuten, eta kontzertu txiki bat eskaintzeko aukera ere izan zuten. Azken baten, asteburu biribila pasatu zuten Arrasateko txistulariek Bartzelonan eta harrera ezin hobea izan zuten.



MUNDUKO LOBARIK ONENENDAKO MEZUA

Orainoan, hiru gaztetxorendako mezu bat daukagu. Garazi, Alazne eta Julen Gartzia munduko lobarik onenak direnez, haien amaordeak mezu hau igorri eta hori jakinarazi gura die. Hiru gaztetxook goiko argazkian azaltzen dira, eta badaukate nahiko motibo pozik egoteko, horrelako mezuak ez dira-eta egunero jasotzen.



ARRASATEARRAK LANEAN FIN, ALDERDI EGUNEAN

Railaren 29an (domeka), Alderdi Eguna ospatu zuten Altuben (Araba), eta milaka lagun elkartu ziren. Urtero moduan, aurten ere txosna asko izan ziren Alderdi Egunean, eta Arrasatek ere izan zuen bere txosna; guztira, 260 lagunek bazkaldu zuten arrasatearren txosnan, eta bapo bazkaldu, gainera. Horrez gainera, ogitarteko mordo ere saldu zituzten. 43 arrasatear izan ziren txosnan lanean.

Kanebo
INTERNATIONAL

MIREN ARRIETA PERFUMERIAN

Kaneboko edertasun aholkulari batek informazio eta tratamendu eksklusiboa eskainiko dizkizu

Urriaren
28tik 31ra
PROMOZIOA
KANEBO
produktuak
erosteagatik
oparia jasoko
duzu*

Bisita gaitzazu Arrasaten
Zerkaosteta kalea 12
Tel.: 943 79 00 35

* Izakinak bukatu arte.



LASAGABASTER

www.lasagabaster.com

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE • Tel.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55

2002-2003 DENBORALDIKO ARRASATEKO ERRUGBI TALDEA

Arrasateko Errugbi Taldeko mutilek ezin hobeto hasi dute denboraldia

Arrasatearrek bi zeingehiagoka jokatu dituzte, Irunen eta Hernaniren kontra, eta biak ere erraz irabazi dituzte.

XABIER URZELAI

Arrasateko Errugbi Taldeak igoera fasea jokatzeko du aurten helburu, eta helburu hori lortzeko bide zuzenetik doaz. Partidu bi, garaipen bi, eta erraz irabazita, gainera. Oraingo asteburuan, Avanto Mineiro talde bizkaitarra izango da Atxabalpeko zelaietan.

Bi partiduetako emaitzei erreparatuz gero, argi dago partiduak erraz irabazi direla

Arrasatearrek maila horri eusten badiote, igoera fasea jokatzeko ez da helburu zaila izango

Arrasateko Errugbi Taldeko mutilek ondo baino hobeto ari dira. Denboraldia hasi zutenetik jardunaldi bi izan dituzte, eta bietan ere irabazi egin dute. Lehenengo kontrarioa Irun taldea izan zen, eta mondragoetarrek 37-15 nagusitu ziren. Joan den asteburuan, berriz, Patxi Gorosabelen mutilek Hernaniraino joan behar izan zuten, eta nahiz eta kanpogan jokatu, mondragoetarrek 7-41 nagusitu ziren. Joan den asteko partiduan Aritz Arrietak aipatzeko moduko partidua egin zuen; izan ere, arrasatearrek bost entsegu egin zituen.

tzea ez da helburu gaitza izango. Joan den urtean, zalantza asko izan ziren, baina azkenean, taldeak denboraldi bikaina egin zuen, mailaz igotzeko lehian ibili zen-eta. Denboraldia hasi baino ez da egin, eta oraingo asteburuan hirugarren jardunaldia jokatu dute arrasatearrek. Bihar, zapatua, 16:00etan, mondragoetarrek Bizkaiko Avanto Mineiro taldearen bisita izango dute, Garagartzan.

Horrenbestez, partidu bi horietako emaitzei erreparatzen badiegu, argi dago mondragoetarrek partiduak nahiko erraz irabazi dituztela, eta bide horri eusten badiote, igoera fasea joko-



XABIER URZELAI

Oraingo asteburuan, Avanto Mineiro taldea izango da kontrarioa.



Patxi Gorosabel
Entrenatzailea
Arrasate



Iñigo Ansuategi
Aurrelaria
Bergara



Gaizka Aranegi
Aurrelaria
Arrasate



Oxel Etxeberria
Hiru laurdenak
Arrasate



Unai Aranburu
Aurrelaria
Arrasate



J. M. Serbide
Hiru laurdenak
Arrasate



Liam Da Silva
Hiru laurdenak
Irlanda



Zumbeltz Arana
Mele erdia
Arrasate



Igor Eraña
Hiru laurdenak
Arrasate



Gorka Aztiria
Aurrelaria
Arrasate



Aritz Arrieta
Hiru laurdenak
Arrasate



Joseba Zabala
Aurrelaria
Arrasate



Iban Agirreurreta
Aurrelaria
Arrasate



Jon Baltzategi
Aurrelaria
Arrasate



Jon Sanabria
Aurrelaria
Arrasate



Garikoitz Heriz
Hiru laurdenak
Arrasate



David Jauregi
Hiru laurdenak
Aramaio



Xabier Gardoki
Aurrelaria
Arrasate

Babeslea

SPORTLAND
FORUM SHOPS

www.forumsport.com

KIROLA ZEURE ESKURA

Garibai Etorbidea, 2-6. Arrasate

FUTBOLA

Mondrak partidu txarra jokatu zuen Urolaren kontra, baina lider jarraitzen du

Oraingo asteburuan, sailkapeneko lehenak eta bigarrenak –Mondrak eta Zumaiakok– neurtuko dituzte indarrak

XABIER URZELAI

Mondra erregional mailako lehenengo postuan dago, eta Zumaiako bigarren da. Oraingo asteburuan, Zumaiakok eta Mondrak indarrak neurtuko dituzte, Zumaiak, eta irabazten duenak sailkapenean alde hartuko du. Joan den astean, bestalde, Mondra 1-0 nagusitu zen Urola taldearen kontra.

Joan den asteburuan, Mondrak 1-0 irabazi zuen Urolaren kontra. Emaitza aldekoa izan zen, eta eskerrak horri, partiduko 90 minutuak ikusteko nahiko lan izan zuten-eta ikusleek. Domekako kontrarioa ez zen Zestoa edo Idiazabal moduko talde bat. Zelaian ondo kokatu eta baloia ondo jokatzen duten jokalariek dituzte Zumarragako taldeak. Lehenengo zatian berdintasuna izan zen nagusi, eta atsedenera iristeko 10 minuturen faltan Urola hamar jokalarirekin geratu zen. Bazirudien ederki aprobetxatuko zuela Mondrak egoera hori, baina ez

zen horrela izan. Urolak behera egin beharrean gora egin zuen, eta gol aukera gehienak Mondrako atean izan ziren.

BIGARREN ZATIA, TXARRA

Bigarren zatia ahazteko modukoa izan zen: joko motela eta nahasia. Jokoa hegaletara zabaldu eta lasai jokatu beharrean, arrasatearrak erdialdetik jokatzen ahalegindu ziren, eta kanpotarrak trebeak ziren joko hori geldiarazten. Bigarren zatian Iker Lópezen jaurtiketa bat izan zen Mondrak erasoan egin zuen gauza bakarretakoa. Hori, eta goleko jokaldia: partidua amaitzeko hamar minutu falta zirenean, beste behin, Asier González *Tiri-k konpondu* zuen partidua. Iker Lópezen jaurtiketa bateko aldaratzea sare artea bidali zuen Arrasateko aurrelariak. Azkeneko minutuetan gura baino gehiago sufritu zuten etxeko jarraitzaileek, baina azkenean, 1-0 Mondraren alde. Oraingo asteburuan, askoz gehiago egin beharko du Mondrak lehenengo postuan jarraitu gura badu.



MAIDER ARREGI

Arrasateko jokalariek gogoz jokatu zuten, baina Urola taldeak esperientzia handia erakutsi zuen.

Eros ezazu Ibai-Arteko dendetan eta irabaz ezazu 600 euroko sari berezia!

Datorren egunean, hilak 31,
Ibai-artek Urriko 600 euroak
zozketatuko ditu.

Ikus ezazu zuzenean GOITBn,
arratsaldeko albistegien aurretik.

eta gainera...
azaroan 600 €
eta abenduan 3.000 €





XABIER URZELAI

Bihar, zapatua, Kenci Arrasate eta Atletico San Sebastian aurrez aurre izango dira Iturripen, 18:30ean.

SASKIBALOA

Azkeneko segundoan galdu zuen Kenci Arrasatek partidua (85-82)

Ursulinas taldekoek azken segundoan hiruko saskiratzea egin zuten euren kantxatik

XABIER URZELAI

Saskibaloian beste kirol askotan baino emozio handiago izaten da, segundo gutxian gauzak asko alda daitezke-eta. Joan den astean, azken segundoan erabaki zen partidua, Iruñeko taldearen alde, baina.

Zapatu arratsaldean, ibarreko saskibaloia talde nagusiak, Kenci Arrasatek, hiru puntuko aldeagatik galdu zuen Ursulinas taldearen kontra. Hiru puntu horiek, gainera, azken segundoan egin zituen Ursulinas taldeko Zoco jokalariek, bere kantxatik jaur-

titako baloia saskiratuta. Partiduko protagonista izan zen Zoco, 32 puntu egin zituen-eta.


Partidu hasieran, beste behin, arrasatearrek aurre hartu zuten (4-15 bosgarren minuturako), baina, beste behin, kontrarioak partidua berdintzea lortu zuen. Azkeneko zeingehiagoketan gertatu den moduan, azken hamar minutuetan erabaki zen partidua. Hiruko jaurtiketak izan ziren protagonistak: talde batek saskiratu, eta berehala kontrarioaren erantzuna. Jokin Laspiurrek ezin izan zuen partidua amaitu, aurrez aurre hartutako kolpe baten ondorioz odola zeriolako (epaile-

ak ez zuen ezer adierazi). Partidua amaitzeko hiru segundo falta zirela, Ander Mallabiarrenak saskiratutako jaurtiketa libre biri esker partidua berdindu egin zuen Kencik (82-82), eta luzapena izango zela uste zutenean, azken segundoan, Zocok baloia hartu, eta bere kantxatik jaurti zuen, eta garaipeneko hiru puntuak eskuratu zituen.

DERBI GIPUZKOARRA

Oraingo asteburuan, Kenci Arrasatek Iturripen jokatu du, Atletico San Sebastian taldearen kontra. Partidua zapatuan izango da, arratsaldeko sei eta erdietan.

FOTOKIROLA



Lau partidutatik bakarra irabazi

Arrasateko pilotariak ez ziren fin ibili egubakoitzean jokatu zituzten Gipuzkoako Kluben Arteko Txapelketako partiduetan. Lau partiduetatik bakarra irabazi zuten, Urribarrenek eta Errastik jokaturakoa, hain zuzen. Kontrario gogorak izan zituzten Mondragoeko pilotariak; ea, bada, oraingo asteburuko partiduetan emaitza hobek eskuratzen dituzten /X.U.

EHIZA

Zonako Ehiza Txapelketa izango da asteburuan Santa Cruz del Fierro

Zapatuan, Zonako Ehiza Txapelketa izango da Santa Cruz del Fierro (Arabako Errioxa). Gipuzkoako hainbat herritako ehiztariak izango dira txapelketan: Urretxuko, Zumarragako, Oñatiko, Legazpiko, Eskoriatzako, Antzuolako eta Arrasateko ehiztariak, hain zuzen. Eperrak eta faisaiak ehizatu beharko dituzte, eta onenek hurrengo txapelketa batzuetan parte hartzeko txartela eskuratuko dute, munduko txapelketaraino iritsi arte.

ESKUBALOA

AGR Arrasate Eskubaloia Taldea 33-15 nagusitu zen Loiola taldearen kontra

Eskubaloiko AGR Arrasatek 33-15 irabazi zuen zapatuan Loiola taldearen kontra. Arrasatearrek lehenengo minututik erakutsi zuten nagusitasuna, eta lehen zatia amaitu zenerako etxeokak 19-3 ziren aurretik. Oraingo asteburuan, senior mailako lehen taldeak Beasainen jokatu du bihar, zapatua, 18:30ean. Bigarren taldeak Iturripen jokatu du etzi, domeka, 11:30ean, Donibaneren kontra.

ZALDIBARARETOFUTBOLA

EMAITZAK

A MULTZOA

Saukelu Scream - Lasagabaster	5-5
Iriztu Taberna - Abokajarro	5-0
NS/NC - Rayo Aldeano	4-1
You Know! - Goma2	3-1
Etixerat - Maldifa's	10-3
Komando Alpagat - Betraye	4-4
Al Kaeda - Makanaki	2-5

B MULTZOA

El Ekipo A - Estu Ta Larri	3-1
Whiskeria - Fraguol Gol	1-18
Fuxxion - Dribling.es.vg	2-6
Aurrera Bolie - Saloga	9-3
AT. Celaya - Billy & The Cowboys	11-2
Etxinai! - Koka Juniors	4-6
AC Surcos - Bikain Akademia	6-5

PARTIDUAK

URRIAK 26, ZAPATUA. EPAILEAK

08:50: Etxinai! - AC Surcos. El Ekipo A
10:00: El Ekipo A - Fraguol Gol. Etxinai!
11:00: NS/NC - Maldifa's. Fraguol Gol
12:00: Whiskeria - Saloga. NS/NC
13:00: Iriztu Tab - Goma-2. Whiskeria
14:00: Fuxxion - Billy & The... Iriztu Tab
15:00: K. Alpagat - Al Kaeda. Fuxxion
16:00: Estu Ta Larri - Dribling. K. Alpagat
17:00: Aurrera Bolie - K. Juniors. Estu T Larri
18:00: Saukelu S - Abokajarro. Aurrera Bol
19:00: AT Celaya - Bikain Akad. Saukelu S

URRIAK 27, DOMEKA

10:50: Etixerat - Makanaki. Rayo Aldeano
12:00: Lasagabaster - R. Aldeano. Etixerat
13:00: You Know! - Betraye. Lasagabaster

HASI DA TXAPELKETA

USTE BAINO JARDUNALDI ISTILUTSUAGOA

Joan den asteburuan, Zaldibar Txapelketako lehenengo jardunaldia jokatu zen, eta hainbat partidutan joko gogorra izan zen nagusi. Behin eta berriro esan dugu antolatzaileek erabaki zorrotzak hartuko dituztela, eta orain zera falta da, antolatzaileek esandakoa betetzea, merezi duenari hasieratik zigortzea.

HAINBAT TALDE SASOI ONEAN

Txapelketako lehenengo zeingehiagoka izateko, hainbat taldek sasoi onean daudela erakutsi zuten joan den asteburuan. Fraguol Gol taldeak 18 gol egin zituen Whiskeria taldeari. AT Celaya eta Etixerat ere ondo ibili ziren. AT Celaya 11-2 nagusitu zen Billy & The Cowboys taldearen kontra. Eta Etixerat-ek 10-3 irabazi zuen Maldifa's-en kontra.

SAILKAPENA

A MULTZOA

	P	J
1. Etixerat	2	1
2. Iriztu Taberna	2	1
3. Makanaki	2	1
4. NS/NC	2	1
5. You Know!	2	1
6. Lasagabaster	1	1
7. Saukelu Scream	1	1
8. Betraye	1	1
9. Komando Alpagat	1	1
10. Maldifa's	0	1
11. Al Kaeda	0	1
12. Goma-2	0	1
13. Rayo Aldeano	0	1
14. Abokajarro	0	1

B MULTZOA

	P	J
1. Fraguol Gol	2	1
2. AT Celaya	2	1
3. Aurrera Bolie	2	1
4. AC Surcos	2	1
5. Dribling.es.vg	2	1
6. Koka Juniors	2	1
7. El Ekipo A	2	1
8. Bikain Akademia	0	1
9. Etxinai!	0	1
10. Saloga	0	1
11. Billy & The Cowboys	0	1
12. Fuxxion	0	1
13. Whiskeria	0	1
14. Estu Ta Larri	0	1

Edertasunaren Gida

**A
U
S
A
R
T**

Ile apaindegi mistoa
Estetika zentroa
Txaro Carrizo

Iturriotz kalea, 24.
Tel.: 943 77 30 60
943 77 21 58

Jose Antonio

**GIZONEZKOEN
ILE APAINDEGIA**

Otalora lizentziatua, 22-behea
ARRASATE
Tel.: 943 79 42 10

JADE

ILE APAINDEGIA

Maalako Errabala, 21-B • ARRASATE • Tel.: 943 77 16 31

**[
L
E
A
]**

Ferrerias, 14. 943 79 87 62

Lore

Olarte, 10 • ARRASATE • ☎ 943 79 52 50

Lurrindegia eta estetika zentroa

KORA O'NEAL Ayer HR CLARINS BIOTHERM VALMONT

Gida honetan
azaltzea nahi
baduzu,
deitu ezazu
943 71 23 91
telefono
zenbakira.



Irudian, iaz Arrasate Lehiaketetan sariak irabazi zituzten gazteak.

AEDk antolatzen duen Arrasate Lehiaketetako izenematea, zabalik

IKER BARANDIARAN

AEDk hamaseigarren aldiz antolatu du Arrasate Lehiaketak izeneko txapelketa entzutsua. Lehiaketa horrek arrasatearren eta debagoienarren ipuinak, poesia, bertso-paperak, komikia, euskalki-grabazioa eta irrati-erreportajea saritzen ditu.

AEDk, urtero, Arrasate Lehiaketak izeneko txapelketa antolatzen du, eta lehiaketa horrek aurten hamaseigarren aldia izango du. Arrasateko eta ibarreko idazleen, bertsozaleen, komiki egileen, eta abarren harrobi polita izan da lehiaketa hori, eta bide hori urratzen jarraitzen du. Izan ere, iraganen lehiaketa horretan sariak izan diren batek baino gehiagok idazten edo marrazten jarraitu, eta ibilbide oparoa izan du nor bere esparruan.

ARRASATEKOAK ETA IBARREKOAK

Arrasate Lehiaketak txapelketa sailetan Leintz ibarrean bizi, lan egin edo ikasten duten hamazazpi urtetik beherako guztiek parte har dezakete. Horiez gain, adin horretatik gorako mailan Debagoien osora zabaltzen da parte hartzea.

Euskarazko obra orijinalak eta inoiz saritu, argitaratu edo emititu gabeak bakarrik aurkez daitezke. Era berean, lagun bera ezin izango da bi arlotara baino gehiagora aurkeztu. Ohikoa den moduan, lan guztiak lelo batekin sinatu beharko dira, eta haiekin batera gutun-azal itxi bat aurkeztu beharko da. Lanak aurkezteko epea otsailaren 7an amaituko da,

*Arrasatearrek eta,
bide batez,
debagoienarrek sei
sailen artean
aukera dezakete*

*Iraganean
lehiaketan saritua
izan den batek baino
gehiagok ibilbide
luzea egin du*

eta interesatuek lanak AEDra bidali beharko dituzte (AED XVI. Arrasate Lehiaketak. Pablo Uranaga, 4-behea).

Epaimahaia AED elkarteak aukeratutako hainbat lagunek osatuko dute eta finalistak zerrenda apirilaren 4an kaleratuko dute.

HAINBAT SAIL AUKERAN

Ipuinen gaia librea izango da eta lanen luzera eta sariak adinaren arabera izango dira, 12, 13, 14, 15 eta 16 urte bitartekoa eta hamazazpi urte gorako artean banatuta. Horien sariak 18 eta 150 euro artekoak izango dira.

Poesiaren sailean ere gaia librea izango da, baita konposaketa eta errimak ere. Lanen luzera eta sariak, berriz, adinaren arabera zehaztu dira: 14 urtekoak, batetik, 15 eta 16 urte bitarteko-

ak, bestetik, eta 17 urtetik aurrerakoak, azkenik.

Bertso-paperei dagokienez, gaia ere librea da eta lanen luzera eta sariak adinaren arabera banatuko dira. Sariak 30 eta 150 euro artekoak izango dira. Dena dela, bertsoak zein doinutarako idatzi diren adierazi beharko da.

Komikiaren sailak ere gai librea izango du. Lanak DIN A-4 formatuan egin beharko dituzte, eta, gutxienez, lau orrialde izan beharko ditu eta, gehienez, sei. Sariak, beste sailetan moduan, adinaren arabera emango dituzte, 30 eta 180 euro bitartean.

EUSKALKI GRABAZIOA

Azkeneko urteotan parte hartzaile gutxi izan dituen euskalki-grabazioak Leintz eta Ugarran bailaretako euskara jaso beharko du. Gaia Arrasateri lotutako edozein izan daiteke, eta bi sail bereiztu dituzte: elkarrizketak eta kontakizunak. Gutxienez, hamar minutu izan beharko ditu grabazioak eta, gehienez, hamabost. Lan hori baloratzeko orduan, euskararen jatorriaren eta aberastasunaz gain, grabazioaren kalitatea ere kontuan hartuko dute. Bi sari izango ditu: bata, 150 eurokoa eta bestea, 60 eurokoa.

Bukatzeke, irrati-erreportajearen saila gelditzen zaigu. Sail horrek ere Arrasateri lotutako edozein kontu batu dezake, eta magnetofoi grabazioak hamar eta hamabost minutu artekoak izan beharko du. Lan horiek zinta baten grabatuta eta gidoi eran idatzita aurkeztu beharko dira. Irrati-erreportajearen sailak bi sari izango ditu: bata, 210 eurokoa eta bestea, berriz, 120 eurokoa.



Irudian, Cante Flamenco txapelketako antolatzaileak, trofeo bereziarekin.

Cante Flamenco txapelketaren finala zapatuan izango da

I.B.

Al Andalusetik antolatutako Cante Flamenco txapelketa aurrera doa, eta dagoeneko azken txanpara heldu da. Izan ere, Al Andalusko egoitzan hiru finalerdiak jokatu dituzte eta bihar, zapatua, txapelketako zazpi finalistak Amaia Udal Antzokian lehiatuko dira.

Al Andalus elkarteak antolatutako Cante Flamenco txapelketako hiru finalerdiak bukatu dira, eta bihar, zapatua, finala izango da. Amaia Udal Antzokian izango da finala, 22:00etan, eta zazpi abeslari lehiatuko dira.

Hauek dira hiru zapatutan Al Andalusko egoitzan egin dituzten

finalerdietan irabazle suertatu direnak: Malagako José Lara, Cadizko Rocio Ruiz, Jaengo Bartolome de Haro, Santurtziko Juan Antonio Herrera, Burgosko Nieves Marques, Gasteizko Diego Hernández eta Logroñoko Manuel Ropero, hain zuzen ere.

Hiru abeslari onenek sari bana jasoko dute: bata, 900 eurokoa; beste bat, 600 eurokoa; eta hirugarrena, 300 eurokoa. Horrez gainera, Al Andalus elkarteak Kordobako bitxigile batzuei garaikur berezi bat egitea eskatu zien; garaikurra urrezkoa eta zilarrezkoa da eta Portaloien eta gitarra baten irudiak batzen ditu, Arrasateren eta flamenkoaren edo Andaluziaren senidetzaren zeinu moduan.

Zaharberri taldeak mintza-lagunak behar ditu

I.B.

Zaharberri taldeak ikasturte berrirako mintza-lagunak behar ditu. AEDk, AEK-k eta Udal Euskaltegiak sortutako taldeak euskaldun berriei euskaltegietatik kanpo euskaraz berba egiteko aukera ematen die, eta euskaldun zaharren premian daude.

Duela bost urte, AEDk, AEK-k eta Udal Euskaltegiak Zaharberri taldea sortu zuten. Elkarte horiek premia handia ikusi zuten: ikasleek euskaltegietan ikasitakoa

praktikan jarri behar zuten, eta, horretarako, eskolatik kanpo euskaraz berba egiteko mintza-lagunak behar zituzten.

Zaharberri taldea eratu, eta ikasturteaz ikasturte horretan dabilta. Asteaz eta asteburuetan elkartzeko diren talde eta talde txoak eratzten dituzte. Batzuk hirukoteka biltzen dira, beste batzuk taldeka, eta beste batzuek euskaltegietatik ekintzak antolatzen dituzte: mendi irteerak eta bestelakoak.

Une honetan, euskaldun zaharrek behar dituzte. Animatzen bazara, jo AEDra.

KULTURAPILULAK

Domekan, Arizmendi Ikastolak antolatutako Perretxiko Lehiaketa egingo dute Laubiden

Aurten, Arizmendi Ikastolak XII. Perretxiko Lehiaketa antolatu du. Gaur, egubakoitza, Arizmendiko ikasleek Bedoña eta Udala aldera joko dute perretxiko bila. San Viator guneko bigarren mailakoek, osteraz, egun osoko irteera egingo dute Ozeta ingurura. Domekan, Laubide plazan, egubakoitzean jasotakoa bildu, eta 11:00etatik 14:00ak bitartean erakusketa egingo dute. Trikitilariak erakusketa alaituko dute eta ikasleek taberna jarririko dute. 14:00etan, parte hartzaileen artean lau sari banatuko dituzte.

E, TXO!

GUREGAIK/ IKASLEEN AKTIBITATEAK JASOTZEKO EUSKARRIA

Udalak ikasleendako ekintzak liburuxka baten batuko ditu

IKER BARANDIARAN

Hemendik aurrera Udaleko Hezkuntza batzordeak urtean herriko ikasleendako antolatzen dituen ekintzak eta Udalak berak ikasle horiei eskaintzen dizkien zerbitzuak liburuxka baten jasoko dituzte.

Urtetan Hezkuntza batzordeak eta Udaleko beste batzorde batzuk herriko ikasleendako izaera desberdineko hainbat aktibitate antolatzen dabilta. Udaleko arduradunek herritarrei aktibitate horietaz informatzeko komunikabideetara jo behar izaten dute, eta horregatik, Udaleko ordezkarien esanetan, informazio horiek herritarrei modu puntual eta sakabanatuan heltzen zaizkie.

Udalak ikasleen gainerako ekintzak eta informazioa modu bateratuan plazaratu gura ditu

Hori dela eta, ikastetxeek ikasturtearen plangintza garaiz egin dezaten eta, era berean, herritarrei Udalak ikasleendako antolatzen dituen ekintzak eta ikasleek eskura dituzten zerbitzuak modu bateratuan jasotzeko, Hezkuntza batzordeak eta gainerako udal departamentuek aldika libu-



ARTXIBOA

Liburuxka horren bitartez, gazteek informazio zabalagoa jasoko dute.

ruxka bat argitaratzea proposatu dute. Arrasateko Udalak liburuxka hori argitaratzeko hiru

enpresari aurrekontua eskatu die, baina asmoa da ekimen hori aurrera ateratzea.

LOTSABARIK/ Ane Gorosabel

“Ez dago aukeratzeko mutil askorik”

IKER BARANDIARAN

Ane Gorosabelek argi dauka, aspalditik, emakumeen eskubideen alde lan egin gura duela. Horrez gainera, ez da zeharka ibiltzen eta, lehenik eta behin, mutilei ipurdira begiraten diela esan digu.

- Txikitan, zer izan gura zenuen?
Emakumeen eskubideen alde lan egitea erabaki nuen aspaldi. Oraindik ere asmo hori berori daukat, eta horretarako prestatu gura dut.
- Zelan ikusten duzu zeure burua hemendik 20 urtera?
Ez dakit seme-alabarik edu-

- kiko dudan, ume batekin edo ikusten dut neure burua; eta, seguruenik, ezkondu barik, Arrasaten edo, bestela, herritxo baten.
- Zein da, zure iritziz, adin idealala?
Orain daukadana oso ondo dago.
- Bizitzan zeri ematen diozu lehentasuna?
Lagunei eta familiari.
- Zerk arduratzen zaitu gehien?
Une honetan, ikasketek. Bestela, ez daukat ardurarik.
- Zerk ematen dizu lotsa?
Jende askoren aurrean berba egiteak.
- Zure alde on bat?
Nahiko saltsera eta alaia nai-

- zela diote.
- Eta alde txarren bat?
Apur bat burugogorra naizela.
- Zure gorputzeko atalik gustukoena?
Ez dakit, bada... Eskuko atzamar potoloa, barregura ematen didalako.
- Jendeari, zeri botatzen diozu begia lehenengo?
Ipurdiari; eta gero, hura eza gutzen ahalegintzen naiz.
- Arrasaten ligatzen da?
Ez.
- Zergatik, bada?
Mutilek ez dutelako inolako pausorik ematen ligatzeko. Gainera, ez dago aukeratzeko mutil askorik.



ADINA: 16 urte • IKASKETAK: Batxilergoko I. maila • ZALETASUNAK: Lagunekin egotea LIBURU BAT: 'Campos de fresas' • FILM BAT: 'Spy game' • MUSIKA TALDEA: Barricada eta Su Ta Gar • KIROL TALDEA: Arrasateko nesken futbol taldea



Danona

KARROZERIAK

Konponketak txapa eta pintura

Musakola auzoa, 15 • ARRASATE • Tel.: 943 79 58 06



Gambrinus
garagardotegia

- Menua:
bazkariak eta afariak
- Karta
- Errazioak
- Pintxoak eta kazuelatxoak

Otalora Lizenziatua, 40-42
Tel.: 943 79 53 32

HIES BERRI

Tel.: 943 79 26 99

S. CARRASCAL S.L.

Guk egindakoak:

- Sukalde altzariak
- Armairu enpotratuak
- Trastelekurako armairuak

Fabrikari erakusketa

Gipuzkoa etorbidea, 6 -1.a
Tel/Faxa: 943 79 01 82

BEHEKODENDATIK

Aitor Rementeria

INMO F3 INMOBILIARIKAKUE

XABIER URZELAI

Aitor tolosarra da, eta Zuzenbidie ikasi euen Donostian. Hala eta be, karrerie bukatu baiño lehenago konturatu zan lanbide hori ez zala bere gustokue izengo. Julixuen zabaldu euen inbiliarixie, eta gustora dabil. Jentiekint tratuen egittie gustetan jako, eta ohittute dago, lehenago be lanien ibilitakue da-eta.

Amets bat?

Euskal Herrixek herri moduen eskubidiek errekonozidute eukittie.

Eta amets txarra bat?

Azkeneko amets txarra Garzonenkin euki dot, oin dala gutxi.

Egin dozun azken biajje?

Andaluziara, oporretan.

Txartel horixe, zeñei?

Kulturan, gizartien... Mailla danetan aurrerapausuek emuteko oztopuek jarten duskuen danei.

Eta gorrixie?

Madril aldeko politikuei.

Pelikula bat? Liburu bat?

Musika talde bat?
The Matrix / Aspaldixen ez dot ezer irakurri / Adibidez, Red Hot Chili Peppers.

Drogak legalizauko zittukie?

Bai.

Eta prostituziñue?

Hori be bai.

Tabernetako txikiteue ala diskotekak?

Txikiteue.

Ze dauketzu sobran?

Batzuetan, nerbixuek.

Eta faltan?

Gauzak egitteko denpora librie.

Etxeko zapatillak ala zapat?

Etxeko zapatillak.

Ze gustetan jatzu Mondraguetik?

Ez dot askorik ezaguketan herrixe, baiñe erdialdien giro politte egoten da.

Alkate izengo bazitze, ze hobetuko zeunke?

Herritarren biherrak kubriduteko errextasunak jarriko nittuke. Baimenak errextu eta papeleue txikittu, adibidez.



X.U.

“Txartel horixe, mailla danetan aurrerapausuek emuteko oztopuek jarten duskueñei”

Eta lehendakari izengo bazitze?

Herrixaren alde lan haundixaguet egingo neuke.

Mendi bat?

Txindoki.

Bizi izetera hiri batera juetekotan, nora?

Donostiara, zerbait esatiarren.

Ezagutu dozun pertsona interesante bat?

Asko daguz, baiñe oin ez jat bat bera be okurriduten.

Eta ezagutu nahiko zeunkeena?

Ernesto Che Guevara.

Tranpan ibilttekotan norbaittekin, zeñekin?

Elle Mc Phersonekin-edo, herri-

“Herritarren biherrak kubriduteko errextasunak jarriko nittuke; burokrazia txikixague”

ko neska baten izena ez dot esango, ba!

Lokala Erdiko plazan dauketzue, baiñe hamen etxebizitza berostie...

Bikote gazte batendako garestixe da.

Konpetentzia haundixe dago Mondraguen?

Beste herrixetan moduen, haundixagorik ez.

Mondraguen zein lekutan dago etxe gehixen saltzeko?

Ez dakit, ba, San Andres aldieneo.

Zeuk nun erosiko zeuke etxebizitza?

Tolosarra naz, hortan, Tolosan erosiko neuke.

NIREBIDAIAHURA/ Asier Moral

Eskoziara / 2002ko uztaila eta abuztua

Asierrek Eskoziako iparraldea ondo baino hobeto ezagutzeko aukera izan du udan. Uda amaieran aste biko ikastaroa egiteko asmoa zuen Edinburgon, eta hori aprobetxatuta, ikastaroa hasi baino aste batzuk lehenago abiatu zen Eskoziara.

Hamazortzi egun egin zituen Eskoziara zehar bidaiatzen. Eta han zehar ibiltzeko ez zuen autorik hartu, ezta zerbitzu publikorik ere. Bizikletan ibili zen, Highlands-etan gora eta behera. Guztira, mila eta bostehun kilometro egin zituen mondragoetarrek. Bidaia Edinburgon hasi zuen, eta Eskoziako erdialdetik iparralderako bidea hartu zuen. Inverness-era iritsi, eta ipar-ekialdeko kostatik John O'Croats-eraino joan zen. Handik, Orkney uharterako bidea hartu zuen, ferryan, eta ipar-ekialdetik ipar-mendebalerako bidea hartu zuen.

Mila eta bostehun kilometro bizikleta gainean egiterakoan, ezuste bat edo beste izatea ohikoa da, eta Asierrek ere izan zuen berea: iparraldean zela, herri batera iritsi baino 200 metro lehenago bizikletako koadroa hautsi zitzaion. “Herri hartan ez zegoen ezer. Ez zegoen dendarik, eta janaria esku-ratzeko ere, nahikoa lan. Bizikleta itsasontziak konpontzen zituzten lantegi batera eraman nuen, eta koadroa soldatu zidaten. Hori izan zen izan nuen arazo bakararra”.

Asierrek Eskoziako paraje ikusgarriak nekez ahaztuko ditu. Hasieran, bakarrik bidaiatzeak beldur apur bat ematen zion, baina ederki moldatu zen. Hori bai, une batzuetan jendearekin berba egiteko gogo galanta izaten zuen. Egutero 90 kilometro inguru egiten zituen bizikleta gainean; hortaz, eguna bidaiatzen igarotzen zuen. Bakarrik bidaiatzea sekulako esperientzia izan da, berriro errepikatze modukoa.

XABIER URZELAI



Lewis uhartean dagoen aterpetxea.



“Eskoziako iparraldean bizikletaren koadroa hautsi nuen”

“Eskoziako parajeak benetan dira ikusgarriak”

Herrialde berriak bisitatu dituzu udan?

Zure bidaia kontatzeko prest zaude?
Anima zaitetz, zure abenturak gustura irakurriko ditugu eta!

Deitu 943 71 25 11 telefonora.



ZAHARRAREN ETXETIK



IKER BARANDIARAN

Ariketa fisikoaren gaineko berbaldiak eta kataraten gainekoak jende ugari batu zuten.

Ariketa fisikoa sarri egitea oso lagungarria da zahartzaroan

IKER BARANDIARAN

Joan den astean, Uribarriko zaharren elkarteak, ia urteroko moduan, Kultura Astea egin zuen. Astearen barrera hainbat ekitaldi antolatutako zituzten: berbaldiak eta eskulamen erakusketa.

ARRASATE PRESSko kazetariok Uribarriko zaharren elkartearen antolatutako berbaldietako baten izan ginen, eta han kontatutakoa oso interesgarria iruditu zitzaigun. Horregatik, orrialde hauetara ekartzea erabaki dugu. Berbaldiak *Ariketa fisikoa hirugarren adinean* izenburu eta Hirugarren Adineko Institutu Komunitarioko (ICTE) partaide batek egin zuen. Berbaldira joan zire-

nek gustura asko entzun zituzten hizlariak emandako argibideak, eta batek baino gehiagok iritzia emateko aukera izan zuen han esandakoaren gainean.

ARIKETA FISIKOA ADIN GUZTIETAN

Hasieratik, hizlariak azpimarratu gura izan zuen ariketa fisikoa egitea oso garrantzitsua dela eta adin guztietan egin behar dela; adin bakoitzean bere neurria egokitu behar bada ere. Geldi egoteak atrofiak sortzen dituela esan zuen, eta, hori dela eta, mugitzea ezinbestekoa dela gogorarazi zuen, are gehiago zahartzaroan.

Ariketa fisikoa egiteak dituen onurak aipatzean, batez ere, bi nabarmendu zituzten: bihotzera eta birikietarako oso ona dela,

baita hezurak indartzeko eta gogortzeko ere.

Onura fisikoez gainera, psikologikoki ere ariketa fisikoa egiteak bere alde onak ditu; izan ere, paseatzeak edo ariketa fisikoa egiteak erlaxatzen eta sintoma depresiboak kentzen ederto laguntzen dute. Horrekin batera, ariketa fisikoa egiteak endorfinak sortzen ditu, eta horiek, endorfinak, ongizatea eta adorea ematen dute.

AHOLKATUTAKO KIROL MOTAK

Hirugarren Adineko Institutu Komunitarioko hizlariak Uribarri bildutakoei hiru kirol mota egitea proposatu zizkien: igeri egitea, ibiltzea eta gimnasia egitea, hain zuzen ere. Bestalde, bizikletan ibiltzea ona dela azaldu zuen, baina kirol horrek pertsona nagusien belaunei kalte egin diezaieke, eta ez da hain komenigarria.

Gimnasia egiterakoan garrantzitsua mugitzea da, eta ez izerdi egitea. Bestalde, gimnasia egitearen abantailak honako hauek dira: gorputz osoa mugi daiteke eta, gainera, gehienetan taldean egiten da.

Igeriketa gimnasia osatuena da: gorputz osoa mugitzen da, artikulazioek ez dute sufritzen eta birikiek eta bihotzak ere lan egiten dute. Ez dago igerilekuan luzerik egin beharrik, ur gainean egotearekin nahikoa dela azpimarratu zuen hizlariak, artikulazioak nekatu barik, horrela ariketa fisikoa egiten delako.

Ibiltzea ere gomendatu zuen: estresa eta tentsioa txikitzen ditu ibiltzeak, kaloriak ere erretzen ditu eta hezurak indartzen dira. Gainera, eguraldi txarra egin arren, etxean ere lasai-lasai ibil daiteke.

Bestelakoak ere izan ziren

Hirugarren adinekoen ariketa fisikoa berba izan zuen berbaldi interesgarriaz gainera, Uribarriko zaharren elkarteak Kultura Astea ere izan zen bestelakorik.

Joan den eguaztenean (urriaren 16an), Hirugarren Adineko Institutu Komunitarioko partaide batek berbaldia egin zuen, *Kataratak eta ikusmenaren arazoak* izenburu zuela. Berbaldi hori entzutea ere jende nahikotxo hurreratu zen Uribarriko zaharren elkartera. Besteak beste, egunero bizitzan ikusmenak duen garrantzia azpimarratu zuen, ikusmenarekin lotutako gaixotasun ezagunenak azaldu zituen eta ikusmenarekin lotutako gaixotasunak sendatzeko egin diren aurrerapausoak ezagutzera eman zituen. Horrez gainera, kataraten gainean ere berba egin zuen, eta hizlariak ikusmena ondo zaintzeko aholkuak eman zizkien.

Berbaldi horiez gainera, joan den astean iragarri zuten Karta Joko Txapelketa atzera bota zuten, partaidetza txikia izan behar zelako. Hori dela eta, txapelketako sariak bazkideen artean zozkatu zituzten: baxera, karta-sortak, eta abar. Bestalde, Uribarriko zaharren elkarteak ikastaroetan dabilzan erretiratuek erakusketa polita antolatu zuten, eta jende mordoa joan zen erakusketa hura ikustera.

LABUR

1938. urtean jaiotako emakumeek urteroko bilkura egingo dute azaroaren 9an

Azaroaren 9an (zapatua), 1938. urtean jaiotako emakume arrasatearrek urteroko bilkura egingo dute. Hain zuzen, Uarkape pilotalekuko jatetxean bazkari ederra egingo dute.

Bazkari horretan eta, bide batez, bilkuran parte hartu gura dutenek Uarkapeko jatetxean bertan izena eman beharko dute. Eta izena emateko orduan hamabi euro ordaindu beharko dituzte. Bilkuraren gaineko informazio gehiago eskuratu gura izanez gero, 943 79 51 14 telefonora dei dezakezue. Hortaz, animatu, eta izena eman lehenik eta behin.

Musakolako zaharren elkarteak erronka berrietarako batzarkideak behar ditu

Musakolako zaharren elkarteak beste dei bat egin gura du batzarkideak lortzeko. Izan ere, elkarteak aurreko presidentek utzita utzi zuen kargua, eta elkarteak diruzainak irailera arte eutsi zion ardura horri.

Hori dela eta, Musakolako zaharren elkarteak batzarkide berriak behar ditu. Are gehiago, Musakolako zaharrek, laster, beste erronka bat izango dute, eta horretarako, batzarkideak biltzea gura dute. Arrasateko Udalak Musakola auzoko erretiratuei Mailsuen etxea eman gura die, eta hemendik gutxira, Udala eta zaharren elkarteak elkartu egin beharko dira proiektua zehazteko.

Udalak Abaroako zaharren elkartearen atezain automatikoa jarri gura du

Udalak Abaroako atzeko atean atezain automatikoa jarri gura du. Atezain horren bitartez, atea beti itxita edukiko dute, eta, edonork txirrina joz gero, atea automatikoki zabaldu egingo da. Bestalde, Abaroako ile apaindegia eta Abaroako bulegoa itxita daudenean, txirrina joz gero, kamera baten bidez Iturbide egoitzakoek zein den ikusiko dute. Asteburuetan, ordea, giltzaz itxiko dute.



Kooperatibistek Josu Otadui omendu zuten

Urriaren 17an (eguna) Amaia antzokian izan zen Kooperatibista Euskaldunen Topaketan Josu Otadui erretiratu arrasatearra omendu zuten. Josu ARRASATE PRESSen kolaboratzaile fina da, baina ez zuten horregatik omendu. Izan ere, kooperatiben eta Fagorren sorreran lan etengabea egin zuen euskararen alde, eta egindako guztiagatik esker ona eman zioten.



ARRASATE
Leire Arregi
Urriaren 26an, 10 urte.
Zorionak, *motorrera!* Etxekoak.



ARRASATE
Eneritz Salcedo
Urriaren 28an, 7 urte. Zorionak, etxekoekoen partetik.



ARRASATE
Mainer Concepción
Urriaren 28an, urtebetetzea. Zorionak, familiaren partetik.



ARRASATE
Pedro Alonso
Urriaren 23an, 4 urtetxoa. Zorionak, etxekoekoen partetik.



ARRASATE
Estibaliz Larrañaga
Urriaren 24an, 14 urte. Zorionak, koadrilakoekoen partetik.



ARAMAIO
Iker Jauregi
Urriaren 28an, 4 urte. Zorionak, etxekoekoen partetik.



ARAMAIO
Xabier Jauregi
Urriaren 21ean, 2 urte. Zorionak, etxekoekoen partetik.



ARRASATE
Agustín Dacosta
Urriaren 28an, 19 urte. Zorionak, ikasgelakoekoen partetik.



ARRASATE
Julen Gartzia
Urriaren 23an, 5 urte. Zorionak, etxekoekoen partetik, eta laztan handi bat Kubatik.



ARRASATE
Iñaki Ruiz de Azua
Urriaren 27an, urtebetetzea. Zorionak, familiakoekoen partetik.



ARRASATE
Tomas Zabala
Urriaren 19an, urtebetetzea. Zorionak, familiakoekoen partetik.



ARRASATE
Mainer Ortiz de Zuñiga
Urriaren 28an, 23 urte. Zorionak. Olaia eta Leire.



ARRASATE
Enara Beloki
Urriaren 25ean, 9 urte. Zorionak! Jose Ramon, ama, Miren eta ahizpa.



ARRASATE
Ainara Hurtado
Urriaren 27an, 23 urte. Zorionak, koadrilakoekoen partetik.



ARRASATE
Amaia Yarritu
Urriaren 25ean, 22 urte. Zorionak, koadrilakoekoen partetik.



ARRASATE
Esteban Larrinaga
Urriaren 28an, 38 urte. Zorionak, etxekoekoen partetik.



ARRASATE
Ibone Nafarrate
Urriaren 26an urtebetetzea. Zorionak eta urte askotarako, guapísima. Koinatu Jon.




ARRASATE
Irati López
Urriaren 30ean, 6 urte. Zorionak, familiakoekoen partetik.



Zorion itzazu zure lagun eta senitartekoak.

Zatoz Arrasate Pressera martitzena baino lehenago argazki batekin eta utzi gure esku!
Otalora lizentziaduna, 31.



weru[®]

Ate + leihoak



ERAKUSKETA: Garro Jenerala, 2
BILTEGIA: Markulete Industrialdea, 20. pabilioia
Tel.: 943 79 24 12 eta 943 79 97 95
ARRASATE



Salterain

PVC-zko ate eta leihoez gain:
mocketak,
zoru arinak,
kortxoak,
Louverdrape
kortinak,
Kortinoba, testila...

EZETZASMATU



XABIER URZELAI

Zenbatgarren urtez jokatu dute aurten Zaldibarko Areto Futbol Txapelketa? Arrastoa: antolatzaileek tabernetan jartzen dituzten karteletan azaltzen da.



Super BM emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du ARRASATE PRESSEK asmatzaileon artean!

ERANTZUNA
IZEN-DEITURAK.....
TELEFONOA.....

Ekarri txartela **EGUAZTEN**
EGUERDIRAKO ARRASATE PRESSERA!

Calvo atun argia
Landare-oliotan, 3 lata

1,19€ 198 pta

Super BMn beti eskaintzarik onenak!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

FERMIN BEREZIBARendako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, Fermin!
Galderen erantzun zuzenak:
1999ko abendua.

ARRASATEKO HISTORIA

Seber Altube: musikaria, filologoa eta filosofoa

JON ANDER RAMOS

Eta musikaria, filologoa eta filosofoa izatearekin nahikorik ez, eta idazlea ere izan zen Seber Altube Lertxundi; euskaraz, gaztelaniaz eta frantsesez idazten zuen. Seber Altube Arrasaten jaio zen, 1879an, Maala kaleko 26. zenbakian. Beti erakutsi zuen Arrasaterikiko maitasuna, musikari handia izan zen, eta Arrasateko Udal Bandarekin lankidetzan ibili zen. Horrez gainera, Gernikako Orfeoiko zuzendaria ere izan zen gaztaroan (1902). Arma fabrika bateko gerentzian egin zuen lan, 1915-1936 urte bitartean, eta berezitasun moduan, pistola bat asmatu eta patentatu ere egin zuen. Euskaltzaindiko fundatzaileetako bat izan zen, eta hasierako urteetatik izan zen lanean akademian, beste pertsonaia garrantzitsu askorekin batera. Seber Altuberen lanik aipagarrienek hizkuntzarekin dute harremana, eta zazpi multzotan bana ditzakegu: euskal sintaxia, euskararen bizitza, euskararen batuketa, euskal azentua,

*Seber Altube,
besteak beste,
Euskaltzaindiko
fundatzaileetako bat
izan zen*

euskal morfologia, euskal hiztegia, eta azken lan bat, non hainbat gai jorratzen dituen. Frantsesez lan bakarra egin zuen, min fisikoaren ikerketa filosofikoaren gaineko bertso bat: *La fonction de la douleur*, hain zuzen ere. Liburua Pauen argitaratu zen, 1958an. *Eusker*a lana osatzen duten hamasei liburukietan hainbat artikulu daude Seber Altubek idatziak, eta Eusko Ikaskuntzako Kongresuetan ere ez da haren lanik falta. Gernikan bizi izan zen, eta hango alkate ere izan zen Seber Altube. Gernikako bizilagunek herriko plaza bati haren izena jarri zioten eta Arrasaten ere Seber Altuberen izenean beste plaza bat dago, orain dela gutxi berritu duten plaza.



XABIER URZELAI

Arrasaten eta Gernikan Seber Altuberen izena daramaten plaza bana daude.

Txirritola

ARAMAIO / Barikua / 2002ko urriaren 25 / 44. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Ubane Madera • Otolora Lizentziaduna 31 20500 ARRASATE • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: txirritola@goiena.com • Lege gordailua: SS.1084/02

Bañera parkerako kulunka berriak ekartzeko asmoa du Aramaioko Udalak

UBANE MADERA

San Martin Eskolan zenbait lan egiteko dirulaguntza emango dio Eusko Jaurlaritzak Aramaioko Udalarari. Diru horrekin, besteak beste, umeendako kulunkak ipiniko dituzte Bañera parkean eta San Martin Eskolako berogailua ere egokituko dute.

Aramaioko Udaleko aparejadore Xabier Berridik aurkeztutako proiektu bat oinarri hartuta, Eusko Jaurlaritzak 46.000 euro pasatxoko dirulaguntza emango dio Aramaioko Udalarari San Martin Eskolan hobekuntza lanak egiteko. Diru horrekin, bereziki, hiru lan egingo dituzte: batetik, eskolako berogailua egokituko dute. Kontua da orain arte gasolioarekin funtzionatu izan duela berogailuak, baina orain, gasarekin funtzionatzeko moduan ipini gura dute. Xabier Berridi aparejadoreak adierazi digunez, azaroaren hasierarako berogailua gertu egongo dela uste dute; horrenbestez, neguan erabiltzeko gertu izango da berogailua.

Horrekin batera, saneamen-duarekin lotutako beste zenbait



Bañera parkean kulunka berriak ipintzeko asmoa du Aramaioko Udalak.

lan ere egingo dituzte San Martin Eskolan.

Eta, hirugarrenik, Bañera parkean umeendako kulunka berriak ipiniko dituzte, Eusko

Jaurlaritzak emango dion dirulaguntzari esker.

ASPALDIKO ESKAERA

Azken hori da, hain justu ere,

aramaiotar dezente Udalarari aspalditik egindako eskaera: herriko parkerik handienean kulunka egokiak izatea. Xabier Berridik jakinarazi digunez,

Eskolako berogailua ere egokituko dute, gasarekin funtzionatu ahal izateko

hainbat kulunka dituen jolas-tokia ipiniko dute Bañeran, gaur egun jolastoki gehienetan ikusten diren horien modukoa. Bereziak izaten dira horrelako jolas-tokiak; izan ere, umeek minik ez hartzeko material bereziekin eginda daude.

Gabonak baino lehen lanak bukatuta egongo direla espero dute.

DIRU ARAZOAK

Udalaren proiektuaren arabera, 84.000 euro pasatxo behar dituzte lan horiek guztiak egiteko. Esan bezala, 46.000 euro pasatxo Jaurlaritzatik eskuratuko dute. Kopuruaren beste %25 Mendikoi erakundetik lortzea espero dute (21.000 euro pasatxo); eta gainerrako 16.000 euroak Udalak berak ipini beharko ditu.

Patxi Salaberri aramaioarrak irabazi du Irun Hiria lehiaketako poesia saria

UBANE MADERA

Patxi Salaberri Muñoa aramaioarra izan da aurtengo Irun Hiria literatura sariaren poesia arloko irabazlea. 'Uretan idatzia' lanarekin lortu du saria. Sormen arloko lehenengo liburua du Patxi Salaberriek. Nobelan, berriz, Andoni Urzelai aretxabaletarrak irabazi du.

Pozik aurkitu dugu Patxi Salaberri Gasteizen, etxean: "Pozik egoteko modukoa da-eta", esan digu. Hamabi lanen artean aukeratu du epaimahaiak Salaberri-

ren lana. Idazleak berak ez daki oso ondo zelan deskribatu lana: "Ez dakit zelan definitu... Poema liburua da, poemarioa". Barruko poemen gainean, berriz, esan digu "politikak direla; poesiaren ezau-

"Ez dira irakurtzeko oso zailak. Irakurlearekin jolasteko gogoia erakusten dute"

garri guztiak dituzte, baina ez dira irakurtzeko oso zailak. Irakurlearekin jolasteko gogoia erakusten dute".

Sormen arloko aurreneko liburua du Patxi. "Arlo akade-

"Nekez jakin daiteke gehiago etorriko diren. (...) Dena dela, baietz esango nuke"

mikoarekin lotutako liburuak baditut, artikuluak... baina ez sormenekorik". Edozelan ere, aurrera begira gehiago argitaratzeko aukera izango duela onartu digu: "Nekez jakin daiteke gehiago etorriko diren. Gogoia beti dago, baina baldintza asko daude tartean. Dena dela, baietz esango nuke".

EHUko irakasle da Patxi Salaberri, Gasteizen. Bizi ere han bizi da, aspalditik. Baina oso gogoan du jaioterria: "Oso leku ona da lasai egoteko eta idazteko; eta behin baino gehiagotan idatzi izan dut han; paraje ikaragarriak ditu".

LABUR

Datorren martitzenean, osoko bilkura

Hileroko bilkura egingo du martitzenean udalbatzarrak. Besteak beste, Arexolako azpiegiturekin lotutako lanen adjudikazioa aztertuko dute zinegotziek. Horrekin batera, azkenaldian agertu diren pintadak gaitzesteko proposamena ere mahai gainean izango dute. Eta, mendian libre dabilen ganadua- ren gaineko ordenantza aldatzeko Eusko Jaurlaritzak egindako proposamenaren gainean ere erabaki beharko dute.

BERTSOLARITZA

Manex Agirre Bertsolari Gazteen Arabako I. Sariketan arituko da bihar

Bagare Euskal Tokiak, Arabako Euskal Kantuzaleen Elkarteak eta Arabako Bertsolari Elkarteak Bertsolari Gazteen Arabako I. Sariketa antolatu dute. 18 eta 25 urte arteko bertsolariei zuzendutako lehiaketa da. Hiru kanporaketa eta finala izango ditu. Eta, hain zuzen ere, bihar, zapatua, jokatu dute aurreneko kanporaketa, Aguraingo Zerua jatetxean. Seina bertsolari lehiatuko dira, tartean, Manex Agirre aramaioarra. 20:30ean hasiko dute bertso saioa. Eta seien artean bi sailkatuko dira Gasteizen jokatu den finalerako.

Bertsolari lehiaketa horrek, berria izateaz gain, berritasun gehiago ere izango ditu. Adibidez, normalean aintzat hartzen ez den faktore bat kontuan hartuko du epaimahaiak: kantatzeko era. Hau da, testuz kanpoko errekurtsoen erabilpen egokia egitea: doinu aproposa aukeratzea, erritmoa, enfasia, tonu egokia erabiltzea...



KIROLA

Aramaioarrak ere izan ziren Eskoriatzako XIII. Bizikleta Martxan

Ehun eta laurogeita lau lagunek parte hartu zuten domekan jokatutako Eskoriatzako XIII. Mendiko Bizikleta Martxan. Zikloturistek 36 kilometroko ibilaldia egin behar izan zuten. Parte hartzaileen artean aramaioarrak ere izan ziren. Eta aramaioar guztiek lortu zuten ibilaldi osoa bukatzea; nahiz eta batzuk beste batzuk baino hobeto ibili.

Argazkian agertzen direnak honakoak dira, ezkerretik hasita: Igor Larrañaga, Javi Larrañaga, Ismael Altuna eta Javi Barbero. Javi Larrañaga, adibidez, oso gustura ibili zen. Javik konfiantza zigunez, eguraldi ezin hobea izan zuten, Eskoriatzako eta inguruko paraje ikusgarriak ikusteko aukera ere izan zuten eta lasterketaren antolaketa bikaina izan zen. Hori bai, gaineratu zigan txirrindulari bat baino gehiago erori zela, baina, zorionez, inork ez zuela kolpe handirik hartu.

BOTEPRONTOAN/ Emilio Pérez · Aramaioko parrokoa

“Asko izan, gutxi izan, parra; benetan kristau izatea, horixe da gure koska”

Emilio Pérez Asensoren (45 urte) familia Urduñan bizi da, nahiz eta bera Soriako Martialai herritxoan sortua izan. Orain dela 21 urte Aramaioa iritsi zen, abadegai zela. Bederatzi urte eman zituen Gasteizen, Pilar parrokiako Euskal Elkartearen eta Olabide Ikastolan. Gasteizko Elizbarrutian Euskal Pastoralaren zerbitzuan ari da buru-belarri. Azken hiru urteotan Aramaion dugu berriro:

Zer moduz Aramaion?

Pozik, duda barik, oso pertsona jatorren artean bizi naizelako. Aramaioko parrokiako lanetan dabilzan gizon-emakumeek urre gorria baino gehiago balio dute. Hala ere, Aramaion ez da bakarrik pozezko misteriorik.

Zer gustatzen zaizu gehien?

Herri izaera. Herri guztietan jende ona dago, eta Aramaion ezagutu ditut nik pertsona bikain horiek. Nagusiak edo gazteagoak, baina gizon-emakume osoak, argiak, berbakoak; familiari eta auzoari guztiz emanak; euskaraz maiteminduta; Euskal Herriaren egoeraz hezurretaraino kezkatuak; lankidetzarako beti prest, auzoan edo gizartean. Horietako asko, kristau bene-benetakoak. Horrelakoek ematen diote auzo



bizitzari maila ona. Horiek dira herriaren eta kristau elkartearen ardatz. Horiekin gertutik bizi izatea zoragarria da; ez dago horren moduko gozamenik.

Eta gutxien?

Mendiolako zentroan zigortuta dauden gazteen etorkizuna, aramaioar batzuk espetxean egotea eta gaztelan aritzeko batzuen joera.

Zelan konpontzen zara horrenbeste auzo dituen herrian?

Aramaion badago Parrokien Arteko Pastoral Kontseilua. Auzo guztiek dute bina ordezkari. Hilean behin biltzen gara eta elkarrekin aztertzen ditugu aukera posibleak. Asteburuetan abade gazte bat, Unai, etortzen zaigu laguntzera.

Abade asko lekuz aldatu dituzte; nora gustatuko litzazuke joatea?

Orain, inora ere ez. Aramaion

egin nahi dut lan.

Parrokiari buruz... Zela dago eliza? Baduzue beharren bat?

Eliza guztiak oso garbi eta txukun daude. Teilatuekin beti erne egon behar dugu. Eta beti dago zer bait: horma zuriketak, argiak, ermitak... Untzillan tximista batek kalte ugari egin ditu: kanpandorreko harrizko sotoa lehertuta dago, eta konponketa zaila du. Beiriteak ere konpondu beharrean daude. Hala ere, egiazko beharrak fedearen arlokoak dira: Ebanjelioaren bideak gogotsu bizi izatea; gaur eta hemen kristau gutxi izatea minik gabe onartzea; Jainkoaren esperientzia espiritual zentzuz eta konplexurik gabe bizi izatea; herriaren arazoak barrutik eta parte hartuz bizi izatea...

Aurrera begira, asmorik bai?

Asmo txiki ugari, baina nire asmo sendoa da Aramaioko parrokiak eliz proiektu berri bat lantzea. Oraingo giro eta jarrera erlijiosoa guztiz berria da guretzako. Jende askok alboan utzi du praktika erlijiosoa. Fededunen jarrera ere sakonki aldatu da. Jokoan dagoena Ebanjelioarekiko leialtasuna da. Asko izan, gutxi izan, parra; benetako kristau izatea, hori da gure koska.

“Aramaioko parroki-lanetan dabilzanek urre gorria baino gehiago balio dute”

“Nire asmo sendoa da Aramaioko parrokiak eliz proiektu berri bat lantzea”

TELEFONO JAKINGARRIAK

OSASUNA / LARRIALDIAK	
Osasun etxea (txandak)	945 44 53 40
Botika	945 44 50 03
Udaletxea	945 44 50 16
Erzaintza (Arrasate)	943 79 71 99
Gurutze Gorria (Legutio)	945 45 52 52
San Martin Eskola	945 44 50 04
Taxi eta autobusak	945 44 50 33
Udal kiroldegia	945 44 53 35
Postetxea	945 44 50 83
Zuako Eskualdea	945 43 01 67
Suhiltzaileak (Zubillaga)	943 78 28 00

AUTOBUSORDUTEGIA

ARRASATE	ARAMAIO	GASTEIZ
07:00	07:15	08:00
10:00*	10:15	
11:00	11:15	
12:00*	12:15*	13:00
15:15	15:30	16:15
17:20	17:35	
18:30*	18:45	
20:30	20:45	21:25
21:00*	21:15	
GASTEIZ	ARAMAIO	ARRASATE
08:15	07:50	08:05
	09:00	09:15
	10:15*	10:30
	11:15	11:30
13:10	13:55	14:10
16:20	17:05	17:20
	17:35	17:50
	18:45*	19:00
19:30	20:00	20:15

OHARRA: izartxoan duten orduetan eskaeraren arabera zerbitzua eskaintzen dute.

Auzoetako bizilagunei zuzendutako da, eta autobusa erabili gura badute, bezperan deitu beharko dute honako zenbaki honetara: 629 54 59 23

OHARRAK

FLAMENKOA ANBOTON

Gaur, barikua, beste kontzertu bat izango da Anboto tabernan. Luis Carrasco gitarrista eta bakarlariak flamenko estiloko musika ekarriko du Aramaioa. Musikari handi eta ezagunekin batera aritu izan da Kordobako musikari hori, Manolo Sanlúcarrekin eta Paco de Luciarekin, adibidez. Egunotan Arrasaten da, flamenko lehiaketan parte hartzen. Anboto tabernakoek hori aprobetxatu, eta gaur, barikua, Aramaion izango da, 21:30ean.

ERRETIRATUEN EGUNA

Bihar, zapatua, ospatuko dute Aramaioko pertsona nagusiak omentzeko eguna: Erretiratuen Eguna. Goizean hasi eta bazkalostera arte izango dute zer egin eta zerekin gozatu herriko nagusienek.

BANERAREN EMAITZAK

Emaitza ona lortu du Banerako gazte mailako taldeak joan den zapatuan: binakoa Cafetería Atenearen kontra. Bihar, berriz, El Pilar Marianistas taldea izango du aurrez aurre, Gasteizen.

ERRETRATUZAHARRA

Vasco-Navarro
trena Arrasaten
sartzen

Vasco-Navarro trenak 75 urte bete ditu. Dagoeneko ez da existitzen; izan ere, 1967ko San Silvestre gauean egin zuen azkeneko bidaia.

Edozelan ere, duda barik, batek baino gehiagok buruan du oraindik Gipuzkoa, Nafarroa eta Araba zeharkatzen zituen trenak.

Hona hemen garai hartako irudi bat, trenak existitzen zeneko, alegia. Aretxabaleta eta Arrasate arteko trenbide zatia ikusten da, trenak pasatzen. Alboan, berriz, etxetresna elektrikoaren Fagorren aurreneko lantegiaren pabilioiak eraikitzen ari ziren.

1918. urteko otsailaren 15ean estreinatu zuten Eskoriatza eta Arrasate arteko zatia. Bien bitartean, Bergarako Labe Garaiak eta Mekolalde lotuko zituen zatia bukatu zuten. 1919ko irailaren 3an, berriz, Labe Garaiak eta Arrasate arteko zatia inauguratu zuten. Horren ondorioz, Gasteiz eta Mekolalde lotu zituzten.

Hortaz, Gasteiztik zetorren hona trenak, Gatzagan behera. Inguru haien



aldapen ondorioz, Vasco-Navarroren tarterik gogorrena zen. Trenaren krisialdiaren unerik larrienean eraiki zuten zatia, ahalik eta gastu txikienarekin. Emaitza maldari jarraituta egindako ibilbidea izan zen, bihurturatsua eta gaitza. Gainera, 15 tunel zituen eta Deba ibaia hiru aldiz zeharkatzen zuen.

Eskoriatzatik aurreragoko bidea hobea zen; erreka bidearekin batera egin zuten ibilbidea. hamahiru bider zeharkatzen zuen Deba ibaia, lau tunel zituen eta Aretxabaletan, Arrasaten, Elorregin, Bergarako Labe Garaietan eta Bergaran zituen geralekuak. Gero, Maltzagan Ferrocarriles Vascongadose-

ko adarrari lotzen zitzaion. Horri esker, Arrasatetik Bilboraino eta Donostiaraino iristea posible zen.

Argazkia eta informazioa: 'Vasco-Navarro Trena' liburua
Urtea: XX. mendeko hasierako hamarkadak

NOLAALDATUDIRENGAUZAK

Iturripe eta
Eskola
Profesionala

1963ko ekainean hasi ziren futbol zelai berriko eta Eskola Profesionaleko lantegi eta eskola praktikoetarako eraikineko lanak egiten.

Dena azkar eta aldi berean egin beharra zegoen: zelai berria, irailean futbol taldearen liga hasi behar zelako; eta eraikina, Zalduspeko pabilioetan Eskola gainezka egoteaz gain, eraikinen prezioak garestitzen ari zirelako.



≈ 1963 Iturripeko inaugurazioa 1964ko maiatzaren 24an egin zuten, baina goiko argazkian oraindik lanetan zebiltzan.



2002 Iturripe asko aldatu da azken 40 urteotan. Gaur egun, ez dago futbol zelairik, baina lur horietan kirola egiten jarraitzen dute arrasatearrek.



Berezitasunak

Kazuelatxoak

Otarteko hotz eta beroak

Arrasate pasealekua, 33
ARRASATE Tel.: 943 79 67 76

Lore

- Lurrindegia
- Kabina
- Fotodepilazioa


Olarte kalea, 10
Tel.: 943 79 52 50Aretz
TabernaMarkole, 5
943 79 14 67
ARETXABALETAARRASATE
HOTELABiteri, 1
Tel.: 943 79 14 16
ARRASATEMonte
tabernaMaaiako arrabala 2
Tel.: 943 79 20 56

Attuma
Lurríndegía



*Astelehenetik aurrera
zuekin berriz ere
Maalako Errabalean*

GRUPO **RKUZ** 1950-2002



Arkauz zure etxea da.



Araba etorbidea 20 • Tel./Faxa: 943 79 23 51
ARETXABAETA



Araba Etorbidea 5 • Tel./Faxa: 943 79 41 82
ARRASATE



Mitarte 3 • Tel./Faxa: 943 77 04 55 **FAGOR**



Asuncion, 1 • Tel./Faxa: 943 79 10 97
ARETXABAETA

